

anaitasuna

1977.EKO EKAINAREN 1EKOA 341. ZENBAKIA 35 PTA

ILA


8'25
9'26'
0'27
1'28
2'29
3'30

MAIATZA

2 9 16 23 30
3 10 17 24 31
4 11 18 25
5 12 19 26'
6 13 20 27
7 14 21 28
8 15 22 29

**EUSKAL HERRIAREN
BURRUKA
ODOLA
OINAZEA**

geure herri eta jendeen alde



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA 

AURKIBIDEA

- 3. Editoriala
- 4-5. Espetxeratuen izen zerrenda.
- 6-7. Konbergentzia zertan den.
- 8. Esker onez
- 9-17. Burruka gogorra
- 19. Doña Prudentzia
- 20-21. Nafarroan langile mugimendua krisian
- 22-23. Ekonomiaren krisia
- 24-29. Deustuko Paraninfoan
- 25-28. Komikia
- 30-31. Basordas
- 32. Ikastolak
- 33-35. Deituren inguruan II
- 36. Satrustegiren izendegia.
- 37. Eta kemen zergatik ez?
- 39. Parabolak
- 41-43. Lauaxetaren azken eskribuak
- 44-45. Musika
- 46-47. Emakumeak
- 49. Postak
- 50. Kalekoa

Makinistak: Itziar eta Idoye
Maketapena: Erramon
Zumalabek.

Muntaiak: Txomin
Argazkiak: Arkoila
eta X. Arzellus

Moldiztegia: Gráficas
San Pedro.
Part. Alzola, 2.
BILBO.

Dep. Legal: BI-1753-1967.

+

RIP

RAFAEL GOMEZ JAUREGUI
JOSE LUIS LOPEZ CANO
LUIS SANTAMARIA MIQUELENA
CLEMENTE DEL CAÑO IBAÑEZ
MANUEL FUENTES MESA
GREGORIO MARICHALAR AYESTARAN



*Herriak esana du
guztia*

ESPETXE-ESPETXERATUEN ZERRENDA

BARCELONA

GONZALEZ TERRON, ANTONIO.— Aramatarra eta Legazpian bizi zena. 21 urte. Langilea eta oraindik juzgatu gabea. 1975.eko Irailaren 18an detentua. Gartzelak: Barzelona, Carabanchel eta orain berriro Barzelona.

BASAHURI

BOUZA, CARMELO.
JUAN DE DIOS CUADRAS.
JAUREGIZUBIA ANTON
ROSANA TRAMON

BURGOS

MUJICA ARREGI, JOSE IGNACIO.— Herrera-koa. 1975.eko Irailean detentua. Ezkondua. Judizioaren zain. Gartzelak: Carabanchel eta Burgos.
GOIBURU MENDIZABAL.— Ordiziakoa. 1975.eko Apirilean detentua. Irakaslea. Judizioaren zain. Gartzelak: Martutene eta Burgos.
GOITIA BATIZ, EMILIO.— Amorebietakoa. Judizioaren zain. Gartzelak: La Coruña eta Burgos.
IBARGUREN AZKUE.— Zarautarra. Langilea. 1975.eko Irailaren 18an detentua. Gartzelak: Carabanchel eta Burgos.
MENDIZABAL BENITO, JOSE LUIS.— Itsasondakoa. Langilea. 1976.ko Apirilean detentua. Gartzelak: Martutene eta Burgos.
MENTXAKATORRE AGIRRE, JOSEBA.— Bilbotarra. 1976.eko Irailaren 29an detentua. Gartzelak: Martutene eta Burgos.
PEREZ BEOTEGI, PEDRO IGNACIO.— Gasteizkoa. Ezkondua. 1975.eko Uztailan detentua eta judizioaren zain. Gartzelak: Barzelona eta Burgos.
AGIRRE ETXAURI, CARLOS.— Bonostiarra. Ikaslea. 1975.eko Apirilean detentua. Gartzelak: Martutene eta Burgos.

CACERES

GOROSTIDI ARTOLA, JOKIN.— Tolosakoa. Ezkondua. 1969.eko Martxoan detentua. Burgos-eko prozesukoa eta bi heriotze zigorretatik konmutatua. Gartzelak: Martutene, Burgos, Cartagena, Soria, Cartagena eta Cáceres.

LARENA MARTINEZ, XABIER.— Sestakoa. Hau ere Burgos-eko prozesukoa eta bi heriotze zigorretatik konmutatua. Gartzelak: Martutene, Madrid, Burgos, Alicante, Soria, Cartagena eta Cáceres.
GARMENDIA ETXEBERRIA, JOSE ANTONIO.— Abaltzisketakoa. 1974.ko Abuztuan detentua. Tiroketa batetan detentua eta detentua ondoren Guardia Civil-ak "tiro de gracia" delakoa aplikatzen dio. Hau dela eta, hiru hilabete inkontzientirik iragan ditu. 1975.ean denek gogoratuak diren judizioan heriotzetik konmutatua. Gartzelak: Burgos eta Cáceres.

CARABANCHEL

RUIZ DE APODACA LANDA, FRANCISCO VIER.— Arabarra. Ezkondua gabea eta langilea. 1975.eko Irailean detentua eta judizioaren zain. Gartzelak: Barzelona eta Carabanchel.
PAGOAGA GALLASTEGI, ENRIKE.— Mondrago etarra. Ezkondua gabea eta langilea. 1976.eko Apirilaren 30ean detentua eta judizioaren zain. Gartzelak: Martutene, Ocaña eta Carabanchel.
ATXAGA AGIRRE, JOSE AGUSTIN.— Iziarko. 22 urte. Ezkondua gabea eta langilea. 1976.eko Apirilean detentua. Gartzelak: Martutene eta Carabanchel. Judizioaren zain.

CORDOBA

IZKO DE LA IGLESIA, XABIER.— Berangokoa. Ezkondua eta azkenengo aldiz 1969.eko Irailean detentua. Lehenik, 40 urtetara kondenatua. Burgos-eko prozesuan bi heriotze zigor eman zizkioten baina konmutatua. Gartzelak: Iruinea, Puerto de Santa María, Burgos eta Córdoba.
DORRONSORO CEBERIC, JOSE MARIA.— Ataurriakoa. Ezkondua gabea. 1975.eko Apirilean detentua. Berangokoaren prozesuan heriotze zigorrera kondenatua eta konmutatua. Martutene, Burgos, Puerto eta Córdoba-ko gartzelatik iragana.
URIARTE ROMERO, EDUARDO.— Jendarra eta Gasteizen bizi dena. Ikaslea. 1969.eko Apirilean detentua. Burgos-eko prozesuan bi heriotze zigorr



~~tara kondenatua eta konmutatua. Gartzelak: Ba-
sahuri, Burgos, Cáceres eta Córdoba.
YARZA ETXENIKE JOSE MARIA.— Lasartearra.
1973.eko Martxoan detentua. Lau judizioetan 155
urtetara kondenatua. Gartzelak: Martutene, Bur-
gos, Madril, Segovia eta Córdoba.
ONAINDIA NAIKIONDO, MARIO.— Lekeition
jaio eta Eibarren bizi zena. 1969.eko Apirilean de-
tenitua. Burgoseko prozesuan heriotze zigorretik
konmutatua.
LANCO CHIVITE, MANUEL.— Donostiarra Ka-
zalarra. 1975.eko Uztailaren 24ean detentua.
1975.eko Abuztuan Heriotze zigorrera kondenatua
eta konmutatua. Gartzelak: Carabanchel eta Cór-
doba.~~

~~OSPITALEAN
HEBIA IÑEZ LASA, IÑAKI.— Ibarrakoa. 1976.eko
Apirilaren 25ean detentua. Langilea eta judizio-
aren zain. Gartzelak: Martutene eta orain, Ospitalean.
ERRIABARENA ESNAOLA, JOSE MARIA.—
Ordizakoa. 24 urte. 1974.eko Abuztuan detentua.
Langilea. Tuparekin batera detentua, orduz gero
Ospitalean aurkitzen da.
EGIA INTXAURRAGA, FELIX.— Arrigorriaga-
koa. 28 urte. Ezkondua eta seme bat. 1975.eko Uz-
tailean detentua. Judizioaren zain. Gartzelak: Ca-
rabanchel, Burgos eta orain, Ospitalean.~~

PUERTO DE SANTA MARIA
SARASKETA IBANEZ, IÑAKI.— Oiartzundarra.
Administratiboa. Gartzelan ezkondua 1968.eko
Ekainean detentua. Heriotze zigorretik konmuta-
tua. Gartzelak: Martutene, Ocaña, Soria eta Puerto
de Santa María.

VALENTZIA
EGANA ARISTI, JOSE IGNACIO.— Itziarkoa. 18
urte. 1976.eko Apirilean detentua. Langilea. Ju-
dizioaren zain. Gartzelak: Martutene eta Valentzia.
PANISELLO SIMON, DANIEL.— Murtxantekoa
(Nafarroa).

ZAMORA

ALDALUR AROCENA, JUAN MARIA.— Itziar-
koa. 18 urte. 1976.eko Apirilaren 10ean detentua.
Gartzelak: Martutene eta Zamora.

MARTUTENE

LARRAÑAGA JUARISTI, FRANCISCO JAVIER.
— Azkoitiarra. 21 urtetakoa. Langilea. 1977.eko
Urtarrilean detentua. Judizioaren zain.
ALDANONDO BADIOLA, FRANCISCO.— Onda-
rroarra. 27 urte. 1977.eko Martxoaren 8an deteni-
tua. Langilea.

~~**NANCIARES DE LA OCA**~~

~~ELORRIAGA PRECIADO, MIKEL.— Legazpiarra
baina Gasteizen bizi zena. 1976.eko Abuztuan de-
tentua.
MURUA LOPEZ DE MUNIAIN, LUIS MARIA.—
Agurainekoa (Salvatierra). 19 urte. Langilea eta
1977.eko Otsailaren 11an detentua.~~

VALENCIENNES (Frantzia)

GONZALEZ GILMAS, OSCAR.— Tolosarra. Eus-
kal atzerriratua. 1976.eko Urriaren 15ean deteni-
tua. 24 urte. Ikaslea.

IRUINEA


BAZTAN, JOAQUIN.
BAZTAN, MARIA JESUS
ANZIN, MARIA JESUS
SAGUES, ANGEL
RASCON, PEDRO.— (Hauk guztiok 1977.eko Api-
rilaren 14ean detentuitak).

YESERIAS

FOREST, EVA.— Bartzelonakoa. Ezkondua eta
hirur seme. 1977.ean detentua. Judizioaren zain.

BESTEAK NOIZ?

ABERTZALE
SOZIALISTEN
KONBERGENTZIARAKO
ELKARTASUNA
CONVERGENCIA
REAGRUPAMIENTO
ABERTZALE SOCIALISTA



KONBERGENTZIA ZERTAN DEN

Euskal Herriko Alderdi Sozialistak, Eusko Sozialistek eta zenbait independentek konbergentzia bat aurrera daramate. Prozesu hau nolakoa den eta zer helburu duen agertzeko, bi alderdi politikoez eta loturarik gabeko independenteez prentsa aurreko bat antolatu zuten Bilbon joan zen Maiatzaren 13an. Prentsa aurreko honek interes handia sortu zuen berriemaileen artean eta hauetariko multzo handi bat egon zen bertan. Prentsa aurrekoaren aurkezpena eta kazetari bakoitzari eman zitzaizkien paperak euskaraz eta erdaraz egin ziren, beste zenbait abertzale kutsuko prentsa aurrekoei adibide on bat emanez. Prentsa aurreko honetan, gainera, Ipar Euskal Herritik etorritako ordezkariak euskaraz egin zuten eta ez frantsesez, bi aldetako hizkuntza berberari lotura bezala duen paperari garrantzia emanez. Ea ikasgai hau beste zenbaitek ikasten duten. Eta K.A.S. barrukoei diotsegu hau, batez ere.





ZERTAN DEN

E.S. eta E.H.A.Sek, konbergentzia honen bidez, alderdi berri bat sortu nahi dute. Bide hau egitean, independenteek garrantzizko partaideak ditugu. Berez, alderdi berri horretan independente asko sartuko da eta konbergentzia honen barruan lan egiten ari diren independenteek proba on bat dira zentzu honetan.

Prentsa aurrekoan agertu zenez, alderdi berria euskal langileriaren alderdi iraultzaile eta sozialista izango da. Formula berrien bidez, sozial eta politik arloetan agertu diren behar berriei erantzun bat eman nahi die. Bai Hego eta bai Ipar aldeko langile abertzale, iraultzaile eta sozialistek dituzten arazoei erantzun bat eman nahi die. Mugatik beste aldeko ordezkariak aitortu zuten, Ipar aldeko dinamika guztiz desberdina da, baina hala ere, K.A.S.eko ikuspuntuak onhartuak izan dira beste aldean. Han lan egiten duten talde politiko abertzaleak —EHASek, JAZAREk, EZKER-BERRIak eta HERRIAREN ALDEak— konbergentzi bide honetan interesatuta daude, mugaren gainetik lotura politiko interesgarri bat sor daitekeela ikustean, batez ere.

Independenteen arloan, KASen puntuen inguruetan dabiltzan asko sortzen ari den alderdi honen militante egin daitezke, berberak izaten ari baitira alderdi honen garrantzizko sortzaileak.

ASANBLADA SORTZAILE, EKAINAREN AMAIERAN

Ekaineko azken egunetan egingo da alderdi berriaren fundaziozko asanblada edo sortzaile nagusia. Bertan zehaztuko dira oinarrizko puntuak eta bere ideologia berezia.

Alderdi honen arlo politikoak sozialismo iraultzailean eta komunismo abertzalean izango ditu



bere mugak, erdian gelditzen den arloan jokatu. Demokrazia soziala eta ezker muturreko indarrak arlo honetatik kanpo gelditu dira. "Ezker muturra" esatean, bai anarkoak eta bai troskoak aipatzen dira. Alderdiaren asmoa langileen indarra sendotzea da, antolakunde bakar bat erabiliz.

Alderdia, euskal langileentzat eta Euskadiren mugetan zabaltzekoa izatean, abertzalea izango da. Gaur egun, Bizkaia mailan, alderdi berriak oinharri sendo samarrak ditu, konbergentzia bidean bi milaren bat independente partaide baitira eta, Asanblada Sortzaile, bost mila izango direlako, Euskal Herri guztiko mailan.

Syndikatu abertzaleei buruz, konbergentzia politiko honek indar sindikal mailako beste konbergentzia bat sor eta bultzatuz lezake, baina oraindik goiz da infludentzia hau ikusteko. Etorkizuna izango dugu alderdi honen ondorioen lekuko.

X.A.

Konbergentziaren aurkezpenean egon zirenen zerrenda hauxe dugu:

Alberto Figeroa, abokatu, bizkaitarra, independentea.

Pedro Luis Terrones, langilea, bizkaitarra, indep. Jabi Ugarte, langilea, bizkaitarra, indep.

Juan Daniel Barandiaran, abokatu, Bizkaikoa, indep.

Roberto Fernandez Palacios, ETAKo preso, bizkaitarra, indep.

Sabin Kortabitarte, profesionari, bizkaitarra, indep. Jose Antonio Olaetxea, ikaslea, nafarra, indep.

Luziano Larrea, langilea, nafarra, indep. Jabier Ortuzar "Txilindro", langilea, ETAKo preso, izandakoa, bizkaitarra, indep.

Eusebio Iriarte, langilea, nafarra, atzerriar izandakoa, indep.

Imanol Lopategi, langilea, bizkaitarra, indep. Zesar Martinez de Agirre, profesionari, arabarirra, indep.

Imanol Luzuriaga, langilea, giputza, indep. Antxon Ibaguren, lan arloko abokatu, giputza, indep.

Iñaki Esnaola, abokatu, giputza, indep. Mikel Etxaburu, langilea, ETAKo preso, izandakoa, atzerriar egona, giputza, indep.

Imanol Intxauspe, "Txoko", langilea, giputza, indep. Mikel Mendiburu, langilea, iparraldekoa, EHASekoa.

Luis Mendizabal, ikaslea, bizkaitarra, E.S.koa. Iñaki Etxeandia, langilea, bizkaitarra, E.S.koa.

Patxi Zabaleta, abokatu, nafarra, EHASEkoa. Jabi Zuloaga, profesionari, bizkaitarra, EHASEkoa.

Manex Goinetxe, idazkaria, iparraldekoa, EHASEkoa.

ESKER ONEZ

Argitara ematen dugu Jokin Gorostidik eta bere emazte Itziarrek egin, eta Larena, Dorronso-rok, Uriartek eta Onaindiak oneritzia eman dioten agiri hau. Brusselatik bidali digute Maiatzaren 24ean.

Agur burrukariok!


Utz nazazue eskerrik asko burrukariok! esaten, espetxean egon diren eta dauden guztien izenen, eta Itziarren eta neure izenean. Eskerrik asko eta besarkada bero bat denontzat.

Askatasuna berreskuratzea ezin daiteke hitzez esplika. Honez gainera gartzeletan hainbat lagun daudeneko kezka eta oroimena geratzen zaigu.

Beti fidatu gara Euskal Herriak eraman duen burrukaz. Hori izan da eta da gure itxaropenaren oinharria. Eta egiazta dieazueket inoiz ere ez zaigula zuen laguntza eta adorea falta izan gure espetxeko hertsaldia duintasunez eraman ahal ukateko.

Espainiar estatuko antifaxista guztien burruka, eta bereziki Euskal Herriak amaiera gabe darimana izan da, gure Herriaren aspirazio demokratiko, nazional eta sozialaren alde burrukatzeagatik egun batetan ezarri zizkiguten irain eta salhapenetatik askatu gaituena eta bere presoak gartzeletatik ateratzen ari dena.

Askapen hau Herriaren presioen fruitu izan da. Eta zenbaitetan honek bere bizitzaren zergaz ordaindu behar ukan du. Hau egiaztatzeko hor daude oraintsu Euskal Herrian gertatu diren hilketak,



8. hor.

oraino gartzelan dirauten euskal preso politikoak, itzultzerik ez duten ehundaka euskal atzerriratuak, Ipar eta Hegoaldean gure Herriari burutu zaizkion atentatuak, torturen, detentzioen, kontrolen, araketen jarraipena.

Indar demokratiko abertzaleak erregimen nahierarako eta bereizle baten menpean diraute: tolerantzia eta zilegitasuna batzuzentzat, ilegalitate eta errepresioa besteentzat, euskal indar iraultzaileentzat bereziki.



Honekin batera, gure une honetako kezkarik nagusiena, espainiar estatuko gartzeletan dauden preso politiko guztien askatzea da eta atzerriratu guztiek haien etxeetara itzuli ahal izatea.

Gobernuak, promesen bidez eta tantaka askatuz nahi duena zera da. Euskal Herriak bere askatasun nazionalen eta gure presoen askatzearen alde daramatzen herri burrukak galdatzea hain zuzen. Hitz batetan esanda, Herria eta honen abangoardiako erakundeak xantaitzea.

Honela bada, jakin beza Gobernuak ez dela tregoarik izango gartzeletan preso bakar bat dagoen bitartean eta benetako demokrazia bat lortzen ez den bitartean, herritar eta euskalduna izan behar harko duen demokrazia.

Gure Herriko arazok bizirik diraute, baina Euskal Herria ere bizirik dago, inoiz baino biziago, gure Euskal Herri maitearen aspirapen demokratiko, nazional eta sozialaren alde burrukan jarraitzeko.

Agur burrukariok!
Gora Euskadi askatuta!
Gora Euskadi Sozialista
Amnistia osoaren alde

Murritzitu gabeko askatasun demokratikoen alde.

Euskal Herria, Katalunia eta Galiziaren nazional subiranotasunaren onespeneren alde.

Demokratik erakundeek polizi indarrak efektiboki eta errealki kontrolatzearen alde.


Euskararen ofizialkidetasunaren berehalako onespeneren alde.

Agur! Eskerrik asko!



Luis Cano hilik. Ez zuen merezi. Providencia etxean bildua, Iruineko sendi batek senidetzat hartua. Mutil zintzoa.

Eta agitatzaile zela al zioen gobernariak? Ez jakiteek edo ez jakin nahiek, berteoi finesterazi nahi gezurra. Zeren gezurra baitzen gobernariak esana.



Iruineako hauzoak hiru egunez horrela. Bazter guztan ke, tiroak... eta. poliziaren eraso (Kixote gaiztoak ezala jendearen kontra, defentsa gutitako jendearen ontra).



Marcelino Celayeta bidaiari, jendea lasterka. Ke eta tiroak esku hutsezko manifestalariei.

16an, greba orokorra egunez, Nafarroa osoa ka-lean zen.

Tuteran zibilak zaldiekin andre eta gizonen kontra. Altsatsuan zibilak zakurrekin (nor zen nor?). Iruinean "espezialek" zahar eta gazte jipoitu zuten.

EUSKAL HERRIAN



Luis Canoren hil leku aurrean, jendea "Eusko gudariak" kantatuz. Egunaren 24 orduetan horrela zegoen beti.



Ikusten den elizako kalonjeak ez zuen eman nahi izan gurutzetik.

"¿Acaso creéis que por un muerto vamos a sacar los santos a la calle?" esan zion komisi bati. Sinesgaitza. Ondoren jendea amorrazioz zegoen. Eliza? A, bai ate atzean gordea.



Gris bat, Luis Canoren oroi loreak oinperatzen. Hilak ere ez dituzte errespetatzen?



Hementxe, LUIS CANO hil zuen poliziak tiro bat buruondoan eta, autopsiak dioenez, larruren kontra pistola jarritz.

Canoren omenez jarri loreak eta kandelak, aldiro hautsi eta oinperatzen zituzten. Gorrotoa ere ba zioten loreei, edo hobe, lore jartzaileei eta erhanari.



Barrikadetan mutikoak ere parte hartu nahi zuten. Etxeetako lehietan etxeakoandreak begira, eta polizia zetorrenean kaleko manifestalariak abisatzen zituzten haien etorreraz.

Atarietako eta leihoetako kristalak, amorrazioz txikitzen zituzten poliziek, barrangoek kanpokoei laguntzen zieten telako.



ERREENTERIA, herri txuri, berde eta gorria, nerri abertzalea, herri langilea. Berriro ere izan dugu Euskadin odol isurtzea.

OSTEGUNEZ, MAIATZAK 12, GREBA OROKORRA AMNISTIAREN ALDE! Eta Gipuzkoa osoa atera zen kalera.

Erreterian, herriko asanblada bat egin ondoren, manifestazioan gindoazelarik, Goardia Zibilak, hiru jeep zekartzatelarik, manifestazioaren aurka etorri ziren jeep eta guzti, ziztua gutitu gabe, pankartak aurretik zeramatzatelarik eta jendea lurrera botaz.

Zer egin, bortizkeria honen aurrean? Hau erabaki zen, koartelera joatea, Goardia Zibilei erantzukizunak exigitzera.

Joan egin ginen ba, nahiz eta indar harremnak gure alde ez egon; guk harriak, besteek pilotak, ke poteak, fusilak eta metrailetak, eta, hori baila, denak erabili zituzten. Jendea erortzen hasi zen. Lehenengoa, Julen Marqués ikusi genuen, hanka odoletan zuelarik; balak izugarritzko zuloa egin zion, hanka galdu egingo zuela pentsatzen genuen, baina ba dirudi salbatuko dutela, sendagileek diotenez. Erreterian, orain hasi eta egun osoan entzun genuen metraileta eta fusilen hotsa.

Arratsaldez, Beraunen (Erreteriarako hauzo bat), asanblada bat egin zen hurrengo egunerako borroka eratzeko helburuz. Handik Erreteriarra jaistean, izan genuen berria: Gizon bat hil dute! Rafael Gómez hil dute! Baina, nola? Erreterian arratsaldez ezer egin ez baita!

Hau izan zen lekuko baten testigantza: "Arratsaldeko zazpi t'erdietan, Rafael Gómez Jauregi beste bi lagunekin paseian zebilen Alameda zinema inguruan. Goardia Zibil talde bat ba zegoen han ondoan eta kotxean pasatzen ari nintzela, metraileta hotsa entzun nuen. Pentsatu egin nuen, han zeuden gazte batzuren aurka tiratu zutela, baina ez, berehala Rafael ikusi nuen, bere bi lagunak eusten zutela, odolez betea. Hogeitamar metrotara tiratu zioten metrailetaz. Rafael kotxean sartzen ari nintzela, "hil naute" esan zidan. Iztieta aldera iristean, gauza bera esan zuen. Geroztik ez zuen hitz gehiagorik egin. Erresidentziara eramane nuen, eta iritsi orduko hilda zegoen". Ordu honen inguruan, beste



ANAITASUNA, 77 - 6 - 1

bi pertsona izan ziren balaz zaurituak. "Garaipen" hau ospatzeko, dirudienez, Goardia Zibilak, gauzez, champagnea edaten ari izan ziren Xenpelaar enparantzan.

Egun tragiko honek Hego Euskadi osoan izan zuen erantzuna ezagutzen dugu. Indar errepresiboen bortizkeria ere, jenerala izan da aste honen barruan. Zaurituak asko izan dira, hilak bost, RAFAEL GOMEZ JAUREGI, 78 urtetakoa, Erreterian eroria; JOSE LUIS LOPEZ CANO, 28 urtetakoa, Iruinean eroria; LUIS SANTAMARIA MIQUELENA, 72 urtetakoa, infarktu batez hila, Iruinean; CLEMENTE DEL CAÑO IBAÑEZ, barrikada bat kentzen ari zela, kotxe batek harrapatu zuen; MANUEL FUENTES MESA, 30 urtetakoa, Ortuellan eroria. Bortizkeria itsua, herria askatasuna eskatzen ari dela zanpatzen duena. Pasaian, ostiralez, gau erdian, Goardia Zibilak sartu ziren herrian berriro, kalean inor ez zegoenean; hasi ziren leihoei, dendei, kotxei eta ikusten zuten denei tiroka pilotatzea eta egiazko balez.

Leihoen aurka tiroka, behin baino gehiagotan aritu dira Hego Euskadi osoan. Balaz zaurituen artean, ba dago bala, bere etxean zegoelarik jaso duen jendea; adibidez, Eva Pérez Fernández, Donostian eta Erreterian, oso grabe dagoen Gregorio Maritxalar.

Prezio garestia, geure presoen askatasunaren truke ordaintzen ari garena. Berriro ikusi dugu garbi, herriaren mobilizapenak besterik ez dituela aterako. Aste tragiko honen ondoren, gobernuak agertu ditu bere neurri berriak. Presoak atzerriratzea, ez da guk nahi dugun Amnistia, baina guk lortu dugun garaipen bat ba da, eta mobilizapen bide honetan jarraitzen bagara, benetako amnistia ere lortuko dugu.

Garrantzitsua da bestaldetik, aste honi buruz balantze labur bat egitea. Geure zonaldean behintzat, aurrerapen handiak izan ditugu maila guztietan. Zonaldeko herri guztiek bizi egin dute borroka aste hau, ez Erreteriar bakarririk, bestetan bezala.

Herri asanblada izan da, beti, borroka zuzendu eta eratu duena. Horretarako, Erreterian, asanbladak komisiio bat aukeratu zuen borroka zuzentzeko lanak eta erantzukizun exigitzea aurrera eramane zezan.

Autodefentsa eginkizunak ere, Asanbladan eratu dira, zeren bestelakoan, polizien ekintzek ez zuten posible egiten asanbladak aurrera eramatea eta. Erantzukizun exigitze mailan ere, herriak kontzientzia hartu du eta faxisten aurka eginkizuna ez da aste honetan bukatu, faxista guztiak zanpatu arte, herriak ez du ekintza hau amaituko.

Asteartez, maiatzak 17, berriro laneratzean, herriak eta langileriak ez zuen hondamen sentimendurik, baizik eta borroka jarraitzeko gogo beroa. Eta gogo hori, bizirik dago oraindik eta nahi dugun guztia lortu arte, askatasun osoa lortu arte, ez da itzaliko.

amnistia astea bizkaian



Euskal Herriak biziki sentitzen du presoen egoera. Fotoan, Basauriko manifestaldi bat larunbata 14an.

Luzea eta beroa izan da Bizkaian amnistia astea. Gipuzkoa eta Nafarroan bezala, odola eta heriotzea goardien eskutik etorri zaizkigu. Burruka desberdina izan dugu berrit, harriak balen kontra, oihuak harmen aurka.

12. hor.

Beste Euskal Herrietan bezala, Bizkaian burruka ostiraletik aurrera sakondu egin zen, Erreterian langile bat hila izan zela jakitean. Hurrengo lerroetan guk bizi izandako uneak eta ezagutu ditugun zehaztasunak dakartzagu.

ANAITASUNA, 77 - 6 - 1



Maiatzaren 15ean, igandea, Bilbo eta inguruko hauzategietan oso burruka gogorra izan zen. Hemengo foto honetan Errekaldeberri hauzategian polizia "ordenu publikoa zaintzeko" prest.

MAIATZAK 13, OSTIRALEA.

Ostiralera arte lantegietan amnistiaren alde egindako burruka ahul samarra izan zen, tamalez. Horrela aitortu zuen langile batek astelehenean -16an- Basahurin egindako biltzarre batetan. Ekonomi unea txarra dela eta, beste arazo batzu dirrela eta, langileriak ez zuen amnistiaren garrantzian birsakondu ostiralera arte. Egun honetan, Errenterian jazotako gertakizun odoltsuak ezagutzean, langileriak amnistiaren alde egiten ari zen burruka askoz gehiago bereganatu zuen. Sindikal indarrek esan dutenez, ehun milatatik gora izan ziren ostiralean Bizkaian lana alde batetara utzi zuten langileak.

Ostiralean zenbait gauza jazo ziren Bilboko herrialdean. Bi Unibertsitateetan geldiketa oso bat egin zen eta ikasleek Deustuko zubian oztopoak jarri zituzten goizeko hamaiketan. Ekonomi Fakultatean 250 ikasle egon ziren hertsia ostegun-ostiraleetako gauean. Hertsaldia uztean manifestaldi bat egin zuten eta bai poliziek betiko moduan ikas-

leen kontra jo ere. Arratsaldean, bai ikasleek eta bai langileek manifestaldiak egin zituzten Santurtzin, Basahurin, Barakaldon eta Erandion. Santurtzikoak 5.000 lagun elkartu zituen, Basahurikoak 4.000, eta bi mila beste biak. Burruka gogorrena Basahurin egin zen, langileek eta goardiek bi ordu t'erdia barru elkar burrukatu baitzuten. Basahurin zauritutakoan artean Abendaño jauna, Basahuriko jueza egon zen. Esan digutenez, juezak, gazte bat gogorki kolpatua izaten ari zela ikustean, protestatu egin zuen eta, nahiz eta jueza zela agertu, bera ere beroki kolpatua izan zen.

Ostiraleko gauean, San Anton elizan hauteskundeetarako zerrendetan ziren laurogeiren bat kandidatu gau osoan hertsia ziren. DCV-ek ez ezik, han bildutakoek agiri bat izenpetu zuten. Agiri honen bidez, kandidatuak azken indarkeriaz protesta bat egiten zuten. Hertsaldi honen antolaitzailea Bizkaiko Amnistiaren Aldeko Elkarteak izan zen. Gau berean beste lauzpabost hertsaldi egin ziren Bizkaian. Durangoko ikastolan egindakoan berrehunen bat lagun bildu ziren.

EUSKAL HERRIAN

Hirur foto hauetan ikusten duzue, barrikada ugari izan ziren alde guztietatik; edozein aparailu, auto eta autobus hartu eta beraiekin barrikadak altxatuz, jendea poliziatik defendatzen zen.

MAIATZAK 14, LARUNBATA

Iruinean beste langile bat hila izan zela ezagutu zen larunbatean. Bigarren erhaite honek lantegieta-ko geldiketa iraun erazi zuen. Asanbladak egin ziren, egun ilun hauen azterketa bat egiteko. Bilbo-ko "Hierro" egunkaria ez zen kaleratu, Iruinean hildako langilea Donostiako egunkari batetako langilea baitzen. Zenbait herritan goardiek gogorki sakabanatu zituzten manifestaldiak eta bai Crucesen eta bai Basurtuko Ospitalean zaurituen zerrendak gorakada bat egin zuen. Kaleko giroa oso iluna zen egun osoan. Herri Irratiak klasik musika zabaldu zuen egun osoan, orduoro berri batzu emanaz. Espainiako "Vuelta Ciclista" Urkiolara heltzean, goardien eta manifestaldien artean burruka gogor bat sortu zen, txirrindulariak eta "vuelta"ren jarraitzaileak lekuko.

Gauean, zazpi syndikal indar Gobernariarekin bildu ziren eta astelehenean greba oso bat egingo zela esan zioten, agiri baten bidez hiru egunetan jatzoko indarkeriak salhatzen zituzten une berean. Gau bertan, ordea, Ortuellan CC.OO.eko ordezkari bat afari batetik irteetan tiro batez hila izan zen. Beste hamasei zaurituak izan ziren.

MAIATZAK 15, IGANDEA.

Bizkaian, Euskal Herri osoan bezala, burruka egun gogor bat izan zen igande hau. Bilbo, amnistiaren aldeko ibilketen biltzeko puntua zela eta, polizia egun osoan kaleetan zehar ibili zen. Goizeko lehen orduetatik manifestaldiak goardien kontra behin eta berriro burrukatu zuten. Goizeko hamaiketan, "La Casilla" aldean, mila lagun elkartu ziren polizien oztopo guztiak gainditu ondoren eta manifestaldi labur bat egin zuten. Gero burruka talde txikien bidez jarraitu zen. Barrikadak han eta hemen egin ziren. Tiroak, kezko poteak, suzko barrikadak, lasterkadak eta oihuak egun osoan nahasirik ibili ziren. Errekaldeberriko hauzoa, Otxarkoagakoa bezala, irlaturik egon zen egun osoan, Errekalden autobus txiki bat irauli zuten manifestaldikoez, Gordonizeko zubia bi barrikada dotorez ebaki ondoren. Santutxu, San Francisco, Deustua eta beste bilbotar hauzoetan ere manifestaldiak eta asanbladak egin ziren igande honetan. Bilbok guda denborako itxura izan zuen askotan eta, bere hauzo eta erdi aldean, suak, keak eta tiroak Belfast gogora erazi zituzten.





Berrito ere Errekaldeberri hauzategia.

ASTELEHENA, MAIATZAK 16

Gobernariak hainbat langile biltzarre egiteko baimena eman zuen astelehen honetan. Greba osoa egin zen Bizkaian eta biltzarreetara milaka langile joan zen. Biltzarre hauetan politik alderdiek, sindikal indarrek eta langileek beren eritzi eta erabakiak agertu zituzten. Bilbon, goizeko hamaiketan, bankuetako langileek manifestaldi bat egin zuten, polizia agertu zen unerarte. Arratsaldean, Bizkaiko Amnistiaren Aldeko Komiteak agiri bat egin zuen. Agiri honen berri ale honetako beste horrialde batetan aurkituko duzue.

Basaurin, Sestao eta Erandion egin ziren langile batzarreetan Manuel Fuentes nola hila izan zen agertu zuten bere lagunek. Hauek diotenez, afari batetatik ateratzean, goardia zibilek hamabost mahaikideen kontra tiroka hasi ziren, norbait hiltzeko asmoz. Ofizial agiriak zioenez, une haietan oraindik "ez zekiten" nola hila izan zen langile hau.

MAIATZAK 17, ASTEARTEA.

Arratsaldeko 6,30etan hamabost milaren bat lagun bildu ziren Fuentes langilearen hilketetan. Une berean, K.A.S.eko kandidatuek hauteskundeetatik beren izenak kentzeko erabakia hartua zutela agertu zuten, prentsa aurreko baten bidez. Hona hemen protesta aurreko honen berri.

AGIRIA.

Erdara hutsean egindako agiri baten bidez —noiz arte euskara baztertzen gure politikariek?—, honela aztertu zituzten K.A.S.eko kandidatu eta independenteek beren erabakiaren oinarriak:

1.— Hauteskunde demokratiko giroa gero eta ulergaitzagoa egiten zaigu, frankismoaren kontra burrukatu zuten burrukalari onenak gartzeletan segitzen baitute, alderdi politiko guztiak lege barruan onhartzen ez diren une berean.

EUSKAL HERRIAN



Barrikada efektiboago izan zedin, jendeak gasolina bota eta su ematen zieten.

2.—K.A.S. eta independente arloetako kandidatuak ginenok Gobernuaren politika zapaltzailea salhatzen dugu. Aberri Egunerako amnistia oso baten promesa hautsi ondoren, herri agerketa guztiak —(Aberri Eguna, Maiatzaren lehena, Montejurra, Amnistia Astea)— galerazi eta zapaldu ditubeti, azken egunotan ezagutu ditugun hilketa, odol eta zaurituen ondorioekin.

3.— Euskal Herriak ezin du hurrengo hauteskundeetako demokrazian sinetsi eta abstentzioa da bere joera egokiena, giro zapaltzailea ikusi ondoren eta amnistia eta askatasun eza sofritzean.

4.— Puntu hauen ondorio arrunta bezala erabaki hau hartu dugu: bihardanik, Maiatzaren 18tik, agiri honen izenpetzaileok beren izenak hauteskunde zerrendetatik kenduko ditugu.

5.— Beste demokratik kandidatura guztiei hurrengo hauteskundeetan ez parte hartzera gomitatzen diegu.

!ZENPETZAILEAK:

Bizkaia aldetik: Perico Solabarria, Jon Idigoras, Santi Brouard, Txutxi Corres, Jose Luis Lizundia, Kepa Leiza, Narciso Artabe eta Antonio Artiñano.

Gipuzkoa aldetik: Patxi Letamendia, Mikel Castells, Antton Ibarburen, Jose Mari Otegi, Iñaki Esnaola, Juan Mari Brandes (Senadoregaia), Jorge Oteiza (Senadoregaia), Gurutz Jauregi (Senadoregaia).

Araba aldetik: Javier Añua, Ruiz de Aretxabaleta, Mikel Paredes, Maite Elizondo eta Txetxu Berzedo.

Nafarroa aldetik: Patxi Zabaleta (Senadoregaia), Vicente Serrano Izko, Perez Zelaya eta Oiz.

Prensa aurrekoa amaitzeko galdera txanda bat egin zen. Bertan, amnistia aste barruan ezagututako indarkeria, odol eta heriotzeak erabaki honen oinharritan daudela esan zuten kandidatu izandakoek. "Aste honetan jazotako indarkeriak eta zapalkuntzak amnistia osoa eta askatasun demokratikoak lortzeko zeuden itxaropen ahulak hankazgora bota dituzte", esan zuten K.A.S.eko eta independente erako kandidatuek. "Maiatzaren 24an geure kandidaturak kentzeko asmoak bagenituen, aste honetako zapalkuntza arintzaile bat izan dugu erabaki hori aurreratzeko orduan".



Bakoitzak hartutako erabakia herriaren artean jazotako eritziak oinharri eta bultzatzaile bezala dituela, esan zuten kandidatu izandakoek. Jon Idigoras-ek esan zuenez "langileria artean askok erabaki hau egokiena dela diote". "Orain bilatuko dugun bidea zera da: herri agintaritza abertzale bat indartzea", esan zuen Ortzik. "Parlamentuko bidea profitatzea ondo iruditzen zaigu. Hala ere, gure ustez, une hauetan bide horik erabiltze nahia gaur desegokia da, herria desmobilizapen batetara bultzatzen baitu. Guk mobilizapena, manifestaldiak, asanbladak indartuko ditugu, bide hauk izan baititu beti Euskal Herriak bere aurrerapen haundien motorea bezala. Madrilen egindako paktuek ez digute inoiz aurrera erazi", esan zuten denon artean.

Ba liteke Gobernuak, amnistiari buruz, "espektakular" moduko erabaki bat hartzea, baina guk amnistia osoa exigitzen dugu. Amnistia osoa Euskal Herriarentzat nahi dugu. Amnistia oso batek Euskal Herriak nazional zapalkuntzaren kontra burrukatzeko eskubidea onhartzea eskatzen du".

Kazetari batek zera galdetu zuen: K.A.S.eko kandidatu eta independenteentzat izango liratekeen botuak, ez al dira orain beste batzuentzat izango? Erantzuna zera izan zen: Gure ustez botu

horik emateko disposatuta zeudenek orain abstentzio arlora joango dira eta, beste zerrendetara ematera zihoazen pertsonak, orain abstentzio hori bide egokientzat hartzea ahalezkoa bezala ikusten dugu.

Abstentzioaren alde kanpaina gogor bat egiteko asmoak dituztela baieztatu zuten ex-kandidatuek. Bide hau "deliktu elektoral" bat denez gero, beré arriskuak ditu.

Aste batean, urte oso batean baino zapalkuntza handiagoa ezagutu dugula Euskal Herrian esan zuten prentsa aurrekoan. Giputz batek zera zioen: "Gipuzkoako gaurko gobernariak beste edozein gobernari bano hilketa gehiago ditu bere sorbaldeetan. Hau ikusiz, nork sinets dezake demokrazia ofizialean?".

Anti-demokrazia ofizialaren froga bat bezala, amnistiaren alde aste barruan jazotako indarkeriei buruz ofizialki emandako berri faltsuak agertu zituzten. "Ez dugu nahi joku gezurti horren barruan erori", esan zuen ex-kandidatu batek.

Hauteskundeen antolatzaileak Euskal Herria sofritzen ari den zapalkuntzaren erresponsable berberak direla esan zuten, prentsa aurreko interresgarri hau amaitzean.

X.A.



KAS inguruko kandidatuak listetatik erretiratzen direla esplikatzeko prentsaurreko batetan.



oinetakoak

iriondo

UMEENTZAKO ZAPATA, ABARKETA,
ESPARTIN ETA SANDALIATAN BEREZIA

ASKAO KALEA, 6
TEL. 415 27 03

BILBO - 5

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi
ondoko txartela eta bidal helbide hontera:

ANAITASUNA

Zabalbide, 68., Bilbo - 6

Posta kaxa: 495, Tfnoak: 433 58 00 - 09 - 08 - 07

Izen-deiturak

Bizilekua

Herria

Probintzia **Tel**

anaitasuna

Bizkaia
hamabosterokoa

ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealdai

Urteko abonamendua:

Bertorako	700 pezeta
Latin Amerikarako	800 pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako	900 pezeta

Ale bakoitza: 35 pezeta



DONA PRUDENTZIA ETA IDEALISTA

Doña Prudentzia, egunero bezala, bere semeak Agustinoen kolegioko autobusaren paradan utzi ondoren, kafetegian sartu da. Barmana hurreratzen zaio.

IDEALISTA.— Egun on, doña Prudentzia. Betikoa?

DOÑA PRUDENTZIA.— Bai.

Esku boltsa salmahaiaren gainean uzten du.

DOÑA PRUDENTZIA.— Hau bai beroa!. Ba dirudi uda datorkigula... Eta, ezer berririk?

I.— Amnistia Astea atzo hasi zela.

D. P.— Bai?. Qué interesante!. Eta zer dago?

I.— Aste osoan ikurrinak balkoietan ipini behar direla.

Doña Prudentzia biziki ikaritzen da.

D. P.— Oj, nik ez!. Ba dio nire senarrak, Don Listok; gu abertzaleak bai, pero no como esos exhaltados.

I.— Ba nik atzo ipini nuen ikurrina, AMNISTIA letreroarekin.

Doña Prudentzia gailetak kafesnean bustitzen ari da.

D. P.— Jende inteligenteak ez du horrelakorik egingen. Ikus Bilbo. Kale dotoreetan ez duzu ikurririk ikusiko, eta hauetan bizi da jende kultura, la gente de orden.

I.— Ba nire hauzoan hainbat dago.

D. P.— Ba, Santutxul. Hori langile hauzo bat duzu. Gainera, espetxean daudenak marxistak omen dira. Konfidantza gutxikoak. Ikus, onak izango balira, Elizak zerbait egingo luke atera erazteko. Baina Eliza ixilik dago. Amnistia kanpaina hori lau ahoberoren kontua duzu.

I.— Barka, Doña Prudentzia, baina nik uste, zerbait egin behar genuke espetxeratuak atera erazteko. Bizitze osoko kondena dute hainbatek: Izko, Onaindia, Mujika Arregi... Eta Garmendiaren kasua?. Poliziek harrapatu zutenean buruan tiro bat bota eta operazio batez buruko garaun piloa kendu behar izan zioten. Gaizki dago osasunez, eta bizitze osorako gartzelara kondenaturik.

Doña Prudentzia gaileta bustia ahoratzen du.

D.P.— Bueno, bueno.

I.— Eta gaur beste kasu erdiragarri bat kondatu didate. Jose Maria Basanta, 34 urtetako inginadorea, Algortakoa bera, hainbat urtetan Euskal Herriaren alde burukatu ondoren, ihes egin beharrean aurkitu zen. Etorri egin da, eta sofrimenduen ondorioz, Bermeoko Psikiatrikoan omen dago, inolako laguntzarik gabe.

D.P.— Ikusten? Gehiegi eman duelako.

I.— Basantaren kasuak benetan hunkitu nau. Eta gainera, ez omen diote behar bezalako tratamendurik ematen. Dirurik ez du eta...

D.P.— Hori da inportanteena, dirua. Hori esaten du nire senarrak, Don Listok. Diruarekin, dena duzu. Horregatik ez dugu balkoian ikurririk ipiniko.

I.— Baina ez diozu ba euskaltzalea zarela esaten?

D.P.— Euskaltzalea bai. Ihaz nire senarrak mila pezeta eman zituen Biblia euskaraz ateratzeko.

I.— Hori ongi dago. Baina ene ustez herriak antolaturiko ekintzei denok lagundu behar genieke. Ongi dago bakoitzak pertsonalki zerbait egitea, baina herri mailan ere, denok elkarturik, lan egin behar genuke.

D.P.— Hori, galtzeko ezer ez duzenok egin dezakezue. Baina guri asko kostatu izan zaigu gauden mailara igotzea, eta posizio hau gordezten ahalegindu behar dugu. Bestela ikus, zuk aipatu duzun Basanta horren kasua.

I.— Gizarte zuzenago bat bagenu, horrelako kasurik ez litzateke sortuko.

D.P.— Horik ameskeriak dituzu.

Doña Prudentziak edalontziko azken tantak irentsi egin ditu. Zutitu eta ordaintzen du.

D.P.— Bueno, Idealista. Bihar arte.

Xabier Gereño.

Iana

NAFARROAKO LANGILE MUGIMENDUA KRISISEAN

"Ez da aski izan, V. Villanueva entpresako 30 lagun kanporatuak ez dituzte oraindik berrartu; gero besteak etorriko dira, Sedinsa, Redin, Miqueo, Telma, Potasas... Noiz arte?"

Apirilaren 15 eta 22rako antolatuta zeuden mobilizapena porrot logikoa gertatu ondoren, Nafarroan diharduten sindikatu eta masa erakunde guztiak ados jartzen dira greba orokor baten deia egiteko, 29rako, arrazoiak guztiek ezagutzen dituzte.

1.- V. Villanuevaren langileen burruka luzea eta ondorengo kaleratzea.

2.- Krisis agiriak eta entpresaren batzutan hausnartzen diren ordain etendurak.

3.- Monarkiaren Gobernuak agindutako neurri ekonomikoengatik protesta egitea.

4.- 35. artikuluaen kontra burruka, kaleratze librearen kontra. Sindikatu bertikalean egindako batzarre guztietan, entpresaren desberdinetako ordezkariak, (gehienak faltatzen dira), asanbladen jarrera agertzen dute, grebak duen batasun izaeragatik, egoera benetan baikorra da. 27an egindako hertsaldiak lanorduen ondoren, entpresaren gutti batzutan gertatu ziren bakarrik, hala eta guztiz ere 29an, iturri ofizialen arauera, 10.000 langilek geldiuena egin zuten, eta guztiak Landabe poligonoan, Super Ser, Pamplonica, Artika lurbeidearen lantegietan, Copeleche, Potasas, Mepansa, Masa, Mina... beste lekuetan Tafallako V. Luzuriaga, Griling, Unicable, Onenan... geldiueneak partzialak izan ziren.

Eguerdian langile bilketa bat antolatu zen Burladan eta G. C.k gogorki erreprimitu zuten, eta bide batez herrira zaintzen zuten oinezko taldeen bitartez. Arratsaldeko 7etan Polizia Harmatuek Sindikatuarekin bilketa bat deuseztatu zuten eta



ondoren hiriaren alde zaharra guztiz zainduta egon zen baina honek ez zuen Txantrea jaisteko bidean betiko barrkada eta geroko manifestazioz eragotzi. Agerian ipini behar da polizien kopuru demasa, Maiatzaren 1.a hurbil zegoelako.

Ikusten denez, 29ko mobilizazioak langileek nahi zuten ondorioa ez du eman, V. Villanuevako langileen egoera lehen bezala dagonez gero. Zentrale sindikalek eta entpresariaren sindikatu batek egin zuten batzarre batetan, berauek entpresako zuzendaritzari hiltzatuko zutela esan zioten, kaleratutako langileak berrartu zituzten. Azken berriaren arauera, entpresako zuzendaritzak produkzioa hasi nahi du, baina beste langile batzuekin.



GATAZKAN DAUDEN BESTE ENTREPRESAKO EGOERA KONKRETUA.

TELMA: Entrepresak eskatu duen krisis espeditatutatik, 90 langileen arteko 32 espeditatuta daude.

SEDINSA: oihal entpresa, Aoizen kokatuta, 240 langile. Entpresa honek dituen problemak, ihazko Urritik datoz. Zuzendaritz aldaketak jasan ditu. Entrepresak bide guztietatik beren problemak ezkututzen eta banatzen saiatu da, desmoralizazioa haundituz eta honela bide batez edo beste entrepresatik langileak joan daitezten.

Zuzendaritzak langileei zera esaten die: 91 lagun kaleratzea beharrezkoa dela, bestela entpresa herzi egin beharko dutela denboralki.

S.REBIN: Honen egoera aurrekoaren antzekoa da. Duela 5 urte 49 zuen, eta gaur 28, entpresa honetan lan egiten dutenak, 14 kaleratu nahi dituzte.

POTASAS DE NAVARRA: Karnalita fabrika hersteagatik 190 langile kaleratzeko mehatxua dago, honekin igandeak eta laneguneko gauetan lan egiten 600 langileri derrigorrez jartzea nahi dute. Hala eta guztiz ere, azken berriek diotenez 50 langile berri sartu dira meatzean.

MERKATALGOA: 2.aren Agrupación Orvina-ko 44. zenbakiko dendan bi neska enplegatu kale-
ratuak izan ziren, jabeak ematen dituen arrazoiak diziplinari buruzkoak dira.

Ikus dezakegunez, Nafarroako langilerian gertatzen ari dena garrantzi haundikoa da, alde batek oraingo mementuan ez gara gai kaleratze problemaren aurrean planteiapen serio bat egiteko, AUTHI, MOTOR IBERICA, POTASAS eta GAS-TEIZKO HILKETENGATIK egindako burruka handiak denok ezagutu ditugu. Gaur, solidaritate eta burruka efektiboaren egun horik, kontzientzia politikoa eta geure buruak antolatze askatasun guttiago genituenean, denok gogoratzen ditugu. Ugazaba, langileen arteko elkar hizketarekin problemak konpontzen al dira?


"Askatasun syndikala"rekin aena konpondu-
ta dugula uste ahal dugu?

Burruka egiteaz nekatuta gaude edo eta erreta?

Gertatzen dena da elkarrengandik aldenduak garela, zatikatuak, geure lanpostu galtzeko inoiz baino beldur gehiago dugu, geure siglen protagonismoa jartzen dugu, hauteskondeek, "demokrazia"k eta legeztapenak xurgatzen gaituzte guztiz, eta alderdi politikoez ere bai.

Ez al da hau Gobernuak nahi duena? Hauteskonde eta "erreforma"rekin ipintzen diguten harrapagailuan eror gaitezen ez al dute nahi?

"Nafarroako langileok banaketa honen aurrean aurkitzen garenez gero,geure langile burrukak orain arte bereiztu gaituen bezala iraun behar duela, kon-
turatu beharra dugu, ez dezagun permiti, lantegie-
tako ordezkarien batzarreak ohitura bat bihur dai-
tezen sektore eta gaiez antola ditzagun, haiekin
efektibitate gehiena erdiets dezagun.




nerea
oinetakoak
boltsak



EKONOMI KRISISAZ

Lehengo egunean, antza denez, Carter Jauna Europara etorri zitzaigun. Giza eskubidez, usteltasunaren kontrako burrukaz eta beste tzirtzileriaz eta erretolikaz mintzatzeko prestatu da oraingo honetan. Egia da bestaldetik, gure eguneroko bizitzaren "gizaeskubideak" eta antzeko hitz huts polit guztiak, Munduko Estatu boteretsuenetik, bai esatez eta egitez, urruti xamar geratzen direla. Londresen, izpirituaren gabezia, hitzaldi bat egiteko bekokia eduki du. Duda gabe lehendakari honen tankera eta beren aurrekoenak ez dira berdinak. Honek Vatikanon ondoan bulegoak ipintzeko eskubidea irabazi duela pentsatzen dugu. Orain, ahalguztiduna denez gero, balkoi bat erostea eta latinez ikastea besterik ez zaio faltatzen. Guri, hau da, benetako pobretasuna sentitzen eta pairatzen dugunoi, sermolari berri honek ezin digu plantarik egin.

Giza eskubideak ala gizajoen eskubideak ba-koitzak beren modura ulertzen ditu. Politikari guztiak zentzugabeko deklarazioak egiten eta betiko esan-mesanak errepikatzen han hemenka dabilta. Batek azkenez bere buruari galdetzen dio ea zertarako den hainbeste jirabira eta gora behera. Zertarako da ba, guztiak ados egonez gero? Egia, gauzaren mamia, barru barruan gordetzen dute eta jakina ez die inori gaineratik ematen, baina biltzarre horretan zertaz aritzen den jakiteko ez dugu orain arte behintzat mikrofonorik ezartzeko beharrik izan. Hau dela eta ez dugu inoiz ere Sovietarreganana joateko beharrik izan. Biltzarre horietan, Mundu osoa dominatzen segitzeko moduz aritzen dira. Mundu osoaren krisaldi honetatik ateratzeko bideaz, biderik balego jakina, horrexetaz mintzatzen dira.



Carter jauna
"gizon ona" omen

Munduko 10 Estatu industriaztatuenek hoge milioi pertsona geldi dauzkate. Estatu Batuek, Alemaniak eta Japoniak bilduriko presupostu defizitak, 1975-76 fiskal urtean 130.000 milioi dolar gainditu ditu. Herri pobreek aberatsei ordaindu behar dizkieten zorrak 400.000 milioi dolarretik gora doaz, eta hemendik sortzen den inflazioa ezin geldi daitekeela esan beharrik ez dago. Haugatik, mutur guztietako politikarien hitzaldiak Santa Ritari ala ezinaren patroiarri deklamaturiko errezu potxuak bilakatzen dira.

Bestaldetik, lehengai guztietako kariotasuna, hirugarren munduko herrien burjabetzeko antsia eta nahia, energiaren arazo lazgarria eta honek dakartzigun ondorio kaltegarriak, lehen aipaturiko datuekin nahastatzen baditugu izugarritzko bonba hiltzaile baten formula aurkitzen ari gara. Mendebaleko ekonomia gainera, serbitzutan datza, hirugarren sektorea orduan, eta dakigunez zerbitzuek ez dute berez aberastasunik sortzen. Beraz, hemen gozatzen ari garen aberastasunak hirugarren munduan daukate oinharria. Gure aberastasuna, mendebal hurrupatzaile honen aberastasuna, fikziozkoa eta gezurrezkoa da.

Egoera oso hau ikusita kapitalak ez du irtenbiderik asko izaten, hirugarren mundua odolhustea eta ezereztatzea ez bada. Ondorioak, betikoak: Bizimailaren ezberdintasun ikaragarriena. Gure planetan oraindik ere, hiru pertsonetatik bat gose da, eta baiezen hau nahiz askotan entzunda ez da topikoa. 75. urtean Asiako Calcutta, Shillong eta Darbhanga hiriek osatzen duten herrialde barruan 250.000 bizilagunak gosez hil ziren (1). Hau guztiau ez diot nik txinitoen kutzak betetzeko asmoz, baizik eta Carterrek aipaturiko giza eskubideak zertzu diren eta zertarako diren argitzeko nahi az. Beren, hitzez hitz, esandako "Jaingoak munduari eman zizkion ondasunak pobreekin erdibatuzeko modu berri bat antolatu beharrea gaude" horretatik, beste Jaingoak libra gaitzala!. Mesfidatuzeko baita benetan.

Barneko ala etxeko politikaz arituz, antinflazionista den borroka xelebrearen helburu bakarra langileriaren kontra jokatzekotan datza, kapitalist mozkinen tasa berbera mantentzeko eta batzutan gehitzeko ere. Mendebaleko Estatu batzuetan, Alemanian esaterako, honelako politika bat praktikatzea nolabait lortu dute, bertan baliabide kontside-

ragarri asko daukate eta. Beste batzutan aldiz, Britainia Handian, Frantzia, Italian, edo Espainiaren kasuan politika berberak, halako neurriak edo obe esanda, neurrigabeko mesurak hartzera bultzatu ditu, Estatuko bankuporrotketa bat sortzeko arriskutan ezarri duenak.

Barneko arazo hauen soluziobide gisa sozial paktua datorkigu. Sozial paktuaren maisuak, ezkerreko alderdi handiak, P.C. eta P.S. batez ere, izaten dira. Kapitalari ez dio Europako P.S. eta P.C.ko politik jokoak ikararik ematen, paktukerizale eta sozial-demokratikak besterik ez direlako. Benetako ikara, alderdi hauk, langileriaren erreibindikazio eta burruka nahiaren mozteko gai diren ala ez jakitean datza. Sozial paktuan syndikatuen oihuak bozaten dira, alokairuen eta bizitza kostuaren indizearen arteko oreka apurtzen da grebak eta manifestaldiak debekatzen dira, edo eta ezkerreko alderdiei jarraikiz mozten eta kontrolatzen. Azkenean, langileen aparatuak gobernu "sozialisten" morroi zintzoenak izaten dira.

Zorionez, Europako herriak ez dira Afrikako Zuluak eta klase arteko paktua apur daiteke, eta herriak lortzen du apurketa, herriak egiten du haustura. Patronatuak, lehendabiziko garaipenak lortu zituen tokietan, kontraesan guztiak zorroztean, sozial-paktua fikziozko politika bihurtzen da. Horrela pasatu da Britain Handian: Sozialistek ezin dute jadanik syndikatoak kontrolatzea. Berdin pasatzen ari da Alemanian, hango syndikatu eta gobernuaren arteko iskanbilak eta sokatirak ez dira erraz konponduko. Italiako syndikatuei P.C.k jarri nahi zien Andreottiren sozial paktua ezinezkoa izan da orain arte. Tamalez, zenbait tokitan, langileria tranpan eror daiteke. Horregatik, syndikatu autogestionatu batzuren beharra eta garrantzia, inoren eskuetan ez jartzeko, inongo alderdikeriarik ez giteko.

Diruak, bitartean, herrialde guztietatik Amerikara alde egiten du, baina bertan ere, langileriaren gogortasuna ikusten ari da. 72. urtean hasi zen mundu osoko ekonomi krisiak ez du irtenbide errazik, are guttiago irtenbide baketsurik. Irtenbide bakarra gure herrietako langileriarengan dago eta ez fruitu gabeko sistema absurdu honetan, balore nagusiak nazional produktu osoaz neurtzen dituenak, nazional zorientasun osoaz neurtu beharrea.

Tomás Trifol

(1) *Ikus UNICEF. La lutte contre la famine dans le monde. 74/75.*

kultura

Deustuko Paraninfoan, eritzi desberdinak

EUSKAL UNIBERTSITATEA ALA E. UNIBERTSITATEAK?

Apirilaren 29an Deustuko Unibertsitatearen Paraninfoa leporaino bete zen. Bertan bildutakoak "Euskal Unibertsitatea" gaiari arreta handiz jarraitu zituzkion, lehen hitzetik azkeneraino. Gaia agertu zutenak ez ziren edonor: mahaiburuan elkartu zirenak hauek dituzue: Gregorio Monreal, Juan Txurruka eta Leguina. Hiru hizlari hauetaz aparte, gainera, Jose Miguel Barandiaran, Adrian Zelaya, J.L. Orella, Eugen Goyenetche, Ruiz Olagueña eta Francisco Albisu egon ziren mahaiburuan.

Ez ditugu hemen han entzundako hitz guztiak idatziko, maiz azken egunetan agertu baitira, bai irrati eta bai aldizkarien bidez. Hemen Paraninfoan entzundako hitzen kutsua nahi genuke agertu. Mahai-inguruan partaide izan zirenek ez zuten irtenbide bat aurkitu, bi baizik gutienez.

Mahai-inguruan Gregorio Monreal eta Leguina ponenteak izan ziren "iraultzaileenak" Txurruka jauna "erdizalea" bezala gelditurik. Monreal doktoreak esandakoa eta Leguinak gero agertutako ideiak iturri berdinekoak izan genituen. Monreal-en eritziz, euskal unibertsitatea lortzeko barruti behar bat lortu behar dugu, lehen urrats bat bezala. Gaur euskal ikasleak Euskal Herrikan kanpo dabilta gehienak, Valladoliden, Salamancan, Zaragozan, e.a. Unibertsitate hauetako errektore jaunei bost axola zaizkie euskal unibertsitari hauen arazoak eta asmoak. Eta errektore hauen joerakoak gara euskaldun gehienok; Monrealek esan zuenez, gaur arte ez baitakigu zenbat diren gure herrikan kanpo dabil-tzan ikasleak eta zeintzu arazo dituzten. Geuri ere bost pipa inporta zaigu arazo hau, ikusten denez


Leguina doktoreak, berak ere, eritzi hauxe be-
rau agertu zuen.

Unibertsitatea barruti bakar bat behar-beharrezkoa zaigu, euskal unibertsitatea sendo bat lortzeko unibertsitate gidatu eta kontrolatu bat behar baitugu eta, gaurko banaketa barruan, hau ez litza-teke ahalezkoa izanen. Bi doktore "iraultzaileek", etorkizunean lortuko dugun euskal unibertsitatea, herri indarren kontrolpean jarri beharko dugu, euskal herriaren ordezkarien kontrolpean. Leguina doktoreak, gainera, probintzia bakoitzean unibertsitate bat egin nahi dutenen haleginak "demagogiarrak" bezala salhatu zituen.

Ruiz Olagueña doktoreak, Monreal eta Leguina doktokeen hitzak entzun ondoren, euskal unibertsitate BAT egiteko asmo hauk, sufritu du-

gun frankismoan ezagututakoak bezala direla esan zuen. Diktadura kutsu bat dutela esan zuen. "Unibertsitate bat" teoriaren kontra "euskal unibertsitate batzu"rena ipini zuen, "ideologia bakoitzak bere unibertsitatea antolatzeke eskubideak baititu". Estatutik unibertsitatea zuzentzeko asmoak "europedagogismo bat bezala salhatu zituen, Estatuak unibertsitate aparta egon behar duela esanez.





Goyenetche doktoreak ez zirudien ere oso ados "euskal unibertsitatea bat" modelu horri buruz. Bere teoria hauxe zen, hitz laburretan: "Unibertsitate bat behar dugu, baina ez kontzentratua". Estatuaren monopolioaren kontra zegoela jakin erazi zuen, totalitarismoaren kontra. Administrazio alde-




Irudiak: Antton Olariagak
Gidoiak: Xabier Kintanak



BI MILA 2000



ORDUAN LAGUN EGIDAZUE KUARTZO HARRIOK ERAMATERA



Irudiak: Erramon Zumalabek
 Gidoiak: Xabier Kintanak

SEGITZEKO

Kriske eta Popolo

Irudiak: Juan Karlos Egillorrek
Gidoiak: Borja Barandiaranek



tik, ordea, batasun baten defendatzaile bat zela esan zuen. "Teknikar batasuna bai, ideologiar batasuna, ez". Iparraldeko unibertsital mundua nola "barruti bakar honen barruan" ipin, hala ere, ez zuen garbi ikusten Goyenetchek.

Adrian Zelayak, bere aldetik, nolakoa izan behar duen euskal unibertsitateak erabakitzeko, lehen politik autonomia baten beharra dugula esan zuen. 1936.urteko Estatutua oso mugatua izan zela unibertsitate arloan esan ondoren, hurrengo estatutuan unibertsitatea guztiz dezentralizatu beharko dugula agertu zuen.

Hitz labur hauen bidez ikus dezakezuen bezala, eritziak oso desberdinak izan ziren. Doktore batzurrentzat, etorkizunean izanen dugun Unibertsitatea herriaren politik ordezkariaren pean egon behar du. Beste batzuk, ordea, etorkizunean izanen dugun Euskal Herrian ideologia asko aske ibiliko dira, bakoitzak bere unibertsitatea sortuz... "Askatasun" kontzeptu desberdinak erabiltzean, unibertsitate kontzeptua desberdina izan behar.

EUSKARA EUSKAL UNIBERTSITATEAN

Gure unibertsitatea "unibertsitate basko" bat ote? Beste arloetan erabili ziren dogmakeria eta baietz sendoak txepelkeria bihurtu ziren euskarari buruz hitz egitean. "Gaur euskalduntze kanpaina bat martxan dela eta, ikusiko dugu zer egin unibertsitatean... Kanpainak arrakasta baldin badu,


euskal unibertsitatea euskalduna izanen da..." Horrelakoak entzun genituen mahai-inguru honetan. Baina gaur Euskal Herrian dauden unibertsitateek ez al dute ezer egingen, euskararen alde? Zer egiten ari dira alfabetatze eta euskalduntze kanpainak sendotzeko? Aurton, Deustuan dabilen E.K.M. mintegiak, ihaz baino laguntza gutiago lortu du unibertsitatearen aldetik...

Orella doktoreak egin zuen eske gogorra: datorren Udazkenetik Euskal Herrian dauden unibertsitateak ofizialkidetasun batetara heltzea lortu beharko lukete. Txurruka jaunak ere "gauzatxoren" bat esan zuen gai honetaz, euskaraz dakitenek azterketak euskaraz egin ahal beharko lituzketela esanez...

Baina, Deustuko Paraninfoan egindako mahai-inguru honetan, ez genuen euskarari buruz gauza sakonik entzun. Euskara bigarren mailako arazoa zela zirudien. Euskal kultura erdaldun bat ahalezkoa bezala agertu zen. Euskarak sufritu duen zapalkuntzaren ondorio ikaragarriak gaur Euskal Herrian dauden unibertsitateek eta zenbait doktorek ontzat hartu dituztela dirudi, erreakzio sakonik ikusi ez baitugu. Eta beren artean, mundu osoko unibertsitateetatik ibili behar izan duen Jose Miguel Barandiaran zeukatelarik! Euskal Unibertsitatea euskalduna izan behar duela ikusteko, ez al dute nahikoa Barandiaranen adibide bizia?

X.A.

Egia nahiago duen marka




Otsein 
Asmoak eragile

GARBIGAILUAK, BAXERA-GARBIGAILUAK, HOZKAILUAK, TERMOAK, EGUZKI PLAKAK.

basordas-en seguritate neurriak: kaka

Prensa aurreko baten bidez, "Euskal Itsasalde Ez Nuklear Defentsarako Batzordeak" bere burru-
karen berri eman zigun, Maiatzaren 9an. Dakizue-
nez, Maiatzaren 6an Diputazioak hartutako eraba-
ki baten kontra inpugnazioak aurkezteko hilabete-
ko epea amaitu zen. Erabaki honen bidéz, Diputa-
zioak Basordas alderdiko hirigintz berezitasuna
aldatu zuen, bertan Iberduero egiten ari den zentra-
learen lanek oztoporik gabe bidea segi dezaten.
Erabaki hau Diputazioan Martxoaren 31an eginda-
ko bilera "misteriotsu" batetan hartua izan zen.



"Misteriotsu" izan zela diogu, inork ez baitaki nor-tzu izan ziren partaideak, ez eta zenbat izan ziren ere. Diputazioan "ez dakite ezer" gai honetaz.

Hilabeteko epe barru horretan, bai "Ez Nuklear Batzordeak" eta bai beste hauzo elkarte batzuk beren inpugnazioak agertu dituzte. Hauekin batean Mungia eta Lemoizen bildutako 2.500 firma eta Ekologi Talde batek jasotako beste 3.000 sinatura presentatu dira Diputazioan, nuklear zentralean kontra. Bai eta, inpugnazioen artean, ingeniari-tzako ikasle batek egindako beste inpugnazio berezi bat ere.

Inpugnazio guztietan denok Diputazioak hartutako erabakiaren kontra jotzen dute, hilabeteko epe labur hori luzatua izan dadin eskatuz. Baina "Ez Nuklear Batzordeak" egindako inpugnazioa askoz mamitsuagoa da. Bere 34 horrialdeetan nuklear zentralean kontra dauden oin-harrizko arrazoi guztiak laburki jaso dira eta "liburuxka" hau irakurtzea guztiz interesgarria da. Hurrengo lerroetan inpugnazio honetan agertutako hainbat zehaztasun agertuko dugu. Hala ere, ahal baldin baduzue, inpugnazio osoa irakurtzea izugarritzko inter-
resgarria izango zaizue.

GORA IOI ASKATUAK

Amerikarrek zentrale nuklearren inguruetan gordetzen dituzten seguritate neurriak gehiegi dira, ikusten denez, Iberduero, S.A. entresarentzat. Nahiz eta Basordas-en ipiniko diren erreaktoreak amerikarrak izan —Westinghouse etxeak eginak—, Iberduerok berak egindako seguritate neurriak gordeko ditu Basordas-en. Lemoizen jarriko diren erreaktoreak 1860 MW. etako indarra izango dute. Amerikarrek diotenez, moeta honetako erreaktoreen inguruan gorde behar diren neurriak hauek dira: 4,200 Kmtako erradio barruan inork ezin du bizi; 42 Kmtako erradio barruan ezin du egon 25.000 bizilagunetatik gora duen herrik; hiri handi batek 59 Kmtara egon behar du, guttienez. Iberduero entresarentzat neurri hauk huskeriak dira. Entresaria honek Basordas-en ipiniko duen zentralean inguruko ezin bizi daitekeen lurraldeak, 750 mtako erradio izango du (amerikarrek diotenez, 4,200 Kmtakoa izan behar luke). Eta berdin jazotzen da beste neurri guztiei buruz: Gran Bilbao lurraldea, bere milioi bizilagun inguruarekin, Basordas-etik 14 Kmtara dago... Non daude amerikarrek dioten 59 kilometroak? Ikusten denez, Euskal Herrian bizi garenok ioi askatuen kontra amerikarrek baino sendagoak gaituk! Eta gainera —hau ez dakigu negargarritzkoa edo barregarritzkoa den— Iberduerok, zentrale alboan, parke eder bat ipintzeko asmoa du!.

SEGURITATERIK EZ

Zentrale nuklearretan istripuak gerta daitezke. Zentrale batetan jazotako istripu batek ondorio

izugarritzko eta hilgarriak izan ditzake. Honengatik amerikarrek, zentrale bat egiten hasi baino lehen, zentralea dagoen lurraldean bizi diren bizilagunak urrun eta arin eramateko plan berezi eta argiak exigitzen dizkiete zentralean egitei. Istripu bat gertatuz gero, bizilagunak arin ihes egiteko prest egon behar du beti. Iberduero-rentzat horrelako plan bat zorakeria bat da, ez baitu arlo honetan ezer egin. Basordas-en istripu bat jazoz gero, bakoitzak ahal duen bezala alde egingo du, korrika, autobusez... edo metroaz. Horrela pentsatzen du Iberduerok, ikusten denez.

Eta gainera, zer seguritate opa ukan dezake orain arte Basordas-en egin diren lanak? 1972. urte-tik 1974. urtera baimenik gabe egin ditu lanak, eta, noski, "Junta de Energía Nuclear"ek ez du lan hauen kalitaterik frogatu. Epe honetan egin ziren lanak ez ziren txantxetakoak izan: ondo eginak al daude ala inoiz pikutara joan al daiteke? Ba liteke lanak ondo eginak izatea, baina ez dago zihurtasunik arlo honetan. Herrialde guztietan bereziki antolatutako komisio batek ikusten ditu egindako lanak. Komisio honetan maila guztietako ordezkariak egoten dira: Non dago Basordasen egindako lanak frogatu dituen komisioa? Iberduero-k antolatu al du komisio berezi hau? 1976. urtean Julián Feijóo ingeniariak Basordas-en erabili behar diren materialeen berezitasunak aipatu zituen, baina: nolakoak dira lehen egindako lanetan erabilitako altzairu eta hormigoiak?.

KOSTUAK

Madrileko energi beharrak beteko dituzten zentrale nuklearrak ez dira Madril inguruetan jarri, Caceresen eta beste lurralde urrunetan baizik. Euskal Herrian, berriz, Bilbotik 18 Kmtara jarri nahi dute Basordas-ekoa. Iberduerok hurbiltasun hau "ekonomi aldetik" komenigarria dela dio. Eta Diputazioak, zer erantzun dio? Ezer ez. Diputazioak ez ditu kalteak ikusi nahi. Basordas inguru guztiak hondatuta geldituko direla ikusi eta Diputazioari ez zaio axolarik. Zentraleak itsaso eta itsasalde guztiak dituzten aberastasunak hondatuko ditu: ez arrantzarik, ez turismorik eta ez atsedean hartzen duen lurralde horretan. Eta gainera, nork erosiko ditu alde horretako lurrak, lur horietan sortutako barazki eta fruituak?.

Iberduerok, bestalde, zentralea Euskal Herriko energi beharrak betetzeko beharrezkoa dela dio. Baina, une berean, zentraleko energi gehiegizkoak zuzen-zuzenean eta osorik Madril eta Valladolid aldera bideratuak izango direla dio. Zein ederki! Euskal Herria nuklear arriskuan jarri ondoren, hemendik kanpo hartuko dituzte indarrak! Zergatik ez aldrebes egin? Berrero, herriak defendatu behar du bere seguritatea, Diputazioak aukeratu baitu bere Iberduero izenezko laguna.

X.A.

IRAKASLEAK ETA SANTUTXUKO IKASTOLA

Aurreko ANAITASUNAn dossier erako azterketa bat argitaratu genuen Santutxuko Ikastolaren apurketari buruz. Bertan esaten zenez, irakasleak guztiz baturik egon dira prozesu osoan zehar eta horrela diraute. Bizkaian, Euskal Herriko beste probintzia batzutan bezala, irakasleak bilduz doaz beren eskubideen defendatzeko, beren indarren pilatzeke eta lan onuragarrien egiteko. Horrela, pittinka-pittinka, Bizkaiko Irakasleen Elkarteak aurreratuz doa. Eta Ikastola Mugimenduan partaide delarik, ezin egon zitekeen isilik, tamaina honetako arazo baten aurrean. Honelatan, irakasleok bildu eta hona zer nolako agiria egin duten

SANTUTXUKO IKASTOLAZ AGIRIA

Karmelo ikastolako gertakizunak aztertu ondoren, Herriaren aurrean hau esatera behartuak aurkitzen gara.

1. Ikastolaren oinharrian egon den irakasle eta gurasoen parte hartze demokratikoari funtsezkoa deritzogu.

2. Horren ondorioz hau salatu behar dugu:

a) Guztien gaitetik pasaz beti kontrolatzen ohiuak daudenen azpijokoa.

b) Diruaren indarrez Asanblada "txantaje" hutsean erabili dutenen jokabidea eta ikastola apurteraino erabili ere:

— IRAKASLEEN lan -segurtasuna jokoan jarri eta beraiek pentsakera pertsonal batetarako duten eskubidea zapaldurik.

— IKASLEEN hezketa prozesua hautsirik.

— GURASOAK kategorian utzirik, semeentzat ikastolarik gabe eta aukeratutako hezketa aurrera eramane ezinik.

3. Ikastolako partaide guztien jesterioa oinharritzat harturik, hau azaltzen dugu:

a) Karmelo ikastolako Asanbladak ukan duen jokabide demokratikoa, eta Pedagogia mailan Euskal Hezketa Herritar batetarrantz urratu dituzten bi-deak guztiz ontzat ematen ditugu.

b) Irakasleek, beren artean eta gurasoekin gorde duten elkertasuna goraiapatuz, guk ere haik guztiekin bat egiten dugu.

c) Honez gainera, ezin uka geniezaieke gure laguntza, lanari dagokionez batez ere.

4. Bizkaiko eta Euskadiko euskal irakasle guztiei dei bat egiten diegu:

a) Diru hutsez altxatu den "KIRIKIÑO" Ikastola inork ez dezala Herri Ikastolatzat har.

b) Bertara joatea pentsa lezakeen edozein irakasle, jakin dezala, Irakasleen Elkarteak oinharritzat hartzen dituen puntuak guztiz hautsi direla hemen eta ezin izango dugula elkartekidetzat hartu.

BIZKAIKO IRAKASLEEN ELKARTEAK

Agiri hau Bizkaiko Ikastolen Elkartekoei (gurasoen ordezkarietara haleraino) ere eman zitzaien, berauek ere sina zezaten; baina hauek ez zuten sinatu nahi ukan. Dena den, hor da agiria. Irakurleak juzka beza.

ZABAL

**Liburu eta disko-kaxete
denda berriz irekia da**

**52 Pannecau kalea
64100 Baiona. Tel. 25 43 90**

DEITUREN INGURUAN 2

Euskal deiturismoaren sustraiak

Euskaldun jendeak, hizkuntzaz eta kulturaz hain desnazionaldurik ez dagoenak, ez die behin ere deiturei garrantzirik eman. Euskal Historian zehar anitz izan dira (Logras, Duvoisin, Topet, Xaho, Kanpion, Lafitte...) administrazioz zeramatan deitura erdarazkoa izan arren Herriak beti euskaldun jatortzat hartutakoak. Baina euskara, gure naziotasunaren lehen ezaugarria galduz zihoan hirietan —Bilbon bereziki— euskalduntasun galduaren tokian arrotz ikusmirako vasqua edo vascongadisimo berri bat sortzen zen. Edozein Herrik bere burua barrutik mugatzen eta ezagutzen du eta hori da, hain zuzen, balio duena. Herri batek bere burua arrotzen erizpidez juzkatzen duenean bere gainbeheraren atarian dagoela esan daiteke.

Askotan esan dut euskaraz, euskaldunki, egin-dako kontzeptuek eta baskoek erdaraz egin-dakoek ez dutela, ezin dutela, balio berbera eduki, bi kultur perspektiba ezberdinetatik eginak direlako. Deiturak, euskara, eta beronekin batera Herri kulturaren tradizioa, galduta zeukaten euskal seme-alabentzat, euskal ethinarekin genetikoki gordetzen zuten loturaren azken seinaleak ziratekeen, erdal administrazioak, baina, paradoxikoki emanak. Deiturak, horrela, euskaldunen artean euskalduntasunaren ezaugarritzat balio ez zuten bitartean, baskoen azken zubia ziren. Zapalduta dagoen herri baten azken harma defentsiboa ziren.

Baina deiturak, harmak bezalaxe, defentsarako izatetik ofentsarako izatera pasatzen direnean, gaizto eta arbuiagarri bilakatzen dira, eta gurean, baskoek, beren euskalduntasunik eza aitortu eta, euskara ikasiz, zuzendu beharrean, beren bufu erdaldundua eredutzat jartzeko ausartzia hartu zuten, beren izaera bastart eta desnazionalduaz bat ez zetozen euskaldun eta Euskal Herri izen nazional historikoak euzkotar eta Euzkadi bihurtzeko punturaino. Arraza, odola, noski, neurri



batetaraino guztien denominadore komun minimoa zatekeen, baina ez zen nahikoa.

Deituren gainean eraikitako euskal arrazismo hori, kasualki, Espainiako aldean jaio zen, hots, legiazio konkretu bat zegoen tokian, eta ez, hain zuzen ere, Ipar aldean.



—Gaztelan judu eta mairuen kontrako arrazismoa gogorra izan zen, gurekoaren iturri.

Espainia: euskal arrazismoaren iturria

Bihur gaitzen berriro iturrietara. Zaharra-goetara, baina. Interesgarria delakoan nago. Ikusiko.

Erdi Haroan, Gaztelan, legeak eratu zirenean, logikoa denez, berak Boterean zeudenek moldatu zituzten, eta gauza jakina da botere-tsuek beren botere egoera iraunerazteko legeak egiten dituztela. Eta Espainia, noski, ez zen salbuespena. Orduan ere klaseak ziren: nagusiak eta apalak, ugazabak eta morroiak. Legeen aurreko abantailak eta eskubideak diruaren eta indarraren arauera jartzea, ordea, ez zatekeen oso egoki. Funtsean holakoxeak izan arren, azal dotoreago batez jantzi beharra zegoen.

Legeak noble, zaldun zirenentzat egiten ziren, dirua eta boterea zutenentzat, baina nobletasunaren neurria ez zen horregatio, maltzurki, jabegoan ezartzen, odolaren gabitasuren baizik.

Juduak, Jesus hil zutelako, eta mairuak, paganoak zirela eta, Jainkoaren graziatik urrun zeuden, madarikatuak ziren; bai eta beraien odoleko guztiak ere. Atxakia hau harturik, nobleek beren pribilegiozko egoera —egiazki jabegoan oinarritua zena— judu eta mairu kutsurik ez izatean jarri zuten, eta horrela bereizkeria erlijiozko, dibino, eta, beraz, natural bat ezarri. Espainiako legeak, horretara, arrazistak bilakatu ziren, erlijio-arraza kontzeptuak, gainera, maiz nahasiz.

Euskal Herriko zenbait herrialdek, Gaztelarekiko merkatal harreman prosaikoengatik —sasoi hartako jendearentzat unibertsaltasuneango destinoak seraphinen kantuak ziratekeen! — Espainiako politikarantz lerratu zuten. Orduko Euskal Herrian legeak herriko ohituretan oinarrirituak ziren eta, pobre eta aberatsen arteko diferentziak egon arren, legeak, theorian behintzat, guztientzat berdinak ziren. Horrexegatik, euskaldunak Gaztelako koroarekin, beren lege-foru propioak gorderik, elkartu zirenean, Herri bien lege ezberdinen arteko interpretapen pitxi bat sortu zen.

Gaztelan legeak nobleen pribilegio ziren. Eta nobleak odol garbia zutelako ziren noble. Euskal Herrian, aldiz, legeak guztientzat ziren. Baina euskaldun bati, berak pobre izan arren, Gaztelara zihoanean, bertako legeen babesa errespetatzen zitzaien, eta beraz, izan gabe, “noble”tzat hartua izaten zen. Euskal Herrian, hegoaldeko zenbait tokitan izan ezik, judu eta mairurik egon ez zenez gero, pentsatzekoa zen, gaztelauen artean, euskaldunen odola ere garbia zela. Hortik datorke, noski, euskaldun guztien berezko nobletasunaren mythoa, Gaztelako lege bereizleengatik sorteraia.

Baina alderantzizko kontua ere gerta zitekeen, hots, gaztelauak Euskal Herrira etortzea. Kasu ho-

retan, espainol lege arrazisten arauera, problema bat planteiatzen zen: etorri berriak Euskal Herriko legeez babestua izateko, noble izan behar zuen plebeioek ez baitzuten Espainian pribilegio hori, eta horretarako, noski, odol garbikoa. Gernikan artxibaturik makina bat odol garbitasunen frogak daude, gaztelau etorriei eskatuak. Espainol legeen arrazismoak, beraz, Euskal Herrira odol garbiaren kontua sartu zuen.

Arazo hori; jakina, euskaldun jende xeheen artean ez zen inoiz ardurakoa, ez zuen inolako garrantzirik, baina hirietako jauntxo baskoen artean, eta hizkuntzaz erdaldunduz zihoazen neurrian areago, egiazko obsesioa izatera heldu zen. Espainian deitura garbi eta "judu deiturak" zeuden bezala, paraleloki, Euskal Herrian apellidos vascos eta apellidos no vascos delako lelo hori hasi zen kontutan hartzen, funtsean deitura guztiak, euskal zein erdal jatorrikoak, erdal administrazio batek jarriak zirelako, erdarazkoak eta herri usariari arrotzak zitzaizkiola ohartu gabe. Serioski pentsatzekoa da, hain "geureak" ditugun apellidoek zergait ez duten euskaraz izen jator eta ezagun bat eduki. Dakikigunez, abizena ehun urte ez dituen asmakeria bat da, eta deitura, jatorragoa izan arren, azken buruan



Yo quiero una España imperial, que me recuerde la de los Reyes Católicos, Fernando e Isabel; una España unida que se haga respetar de todo el mundo, por su potencia y por sus virtudes.

Defentsako eta ofentsako arrazismoen artean ba dago aldea.

latinetikoa dugu (dictum eta -ura atzizkia, cf. amargura, moldura, cortadura...). Euskaraz bai, herri izen bat izan da, guk, geure administral itsukeriagatik, oraino ez ikusia: goitzen, gaitzizen, ezizena, azkenok pejoratiboak izan arren.

Paradoxikoa da, baina egia hutsa, gure deitura-zaletasun horren iturria, azkenean gaztelauen arrazismo zaharra —eta ez hain zaharra— besterik ez dela ikustea.

Kontsolatzeko... euskaldun jendea

Eta arrazismoaz ari garelarik, permiti biezat irakurleak kontsiderazio batzu hemen egitea.

Euskaldunok arrazistatzen jotzen gaituzte hauzok. Batzu batzuk, behintzat. Geure buruaz harrotzen omen gara, besteak mesprezatzen omen ditugu. Hola diote. Ez noa ni —nor eta ni!— hori guztiori ongi dagoela esatera, baina maiz defentsarako jarrera izan den aldetik, nolabait justifika egin daiteke.

Baina erdaldunek —frantses zein espainolek— zer egiten dute? Espainian Dña de la Hispanidad delakoa dago oraindik, Hitler eta Mussoliniren garaian, inolako lotsarik gabe, Dña de la Razatzen aldarrikatua. Francok liburu bat idatzi zuen, -Raza, eta izen berberaz filme bat egin zuten haren ki-deek. Ez digute holakoek guri arrazista esango!

Ba da, ordea, gehiago. Gaztelau-espainolak ez dira, inondikan ere, arrazistak, baina beren hizkuntza, bai berentzat eta bai, antza, besteontzat, ederrera, onena, egokiena, kultuena delakoan edo, besteoi —geurea galerazirik— nahiz eta nahiz ez gainjarri digute. Ameriketako indiarrei erdara irakastea eskoletan beti gogoratu behar den ekintza ohorezko bat da, horrekin batera bertakoen hizkuntzak zapaldu zirela aitortu arren.

Gaztelauak berentzat egindako legeak, dirudieenez, bai berentzat eta bai guretzat egokienak dira, guri, geureak kenduta, indarrez harrerazi dizkigute eta. Euskaldunok ez dugu historia, literatura edo kultura dei daitekeen gauzarik, eta horregatik, geurean, gaztelauak berenak ez beste irakasten dizkigute. Geure burua gobernatzeko geneukan ahalmena kendu zigutenean, noski, ez ziguten ea Gaztelapeko morrontza nahi ote genuen galdetu, baina Autonomi Estatutu bat ematekotan, hori bai!, bi, hiru edo hamar aldiz bota eraziko digute, gure egiazko asmoa zein den jakiteko. Guzti honetan, baina, ez dago inolako arrazismorik, ez eta imperialismo edo kolonialismo dei daitekeen gauzarik. Gure onerako egiten dute, patternalki. Ez gaizki pentsa!

Hau, geure buruaz gehiegi ez lotsatzeko, ongi kontutan eduki behar dugu euskaldunok, geurea, azken finean, teoriakoa eta defentsarakoa izan bada ere, erdaldunena praktikazkoa, obratua, ofentsazkoa izan baita. Eta baita.

Xabier Kintana.



EUSKAL IZENDEGIA



**NOMENCLATOR
ONOMASTICO
VASCO**
**NOMENCLATEUR
DE PRENOMS
BASQUES**

SATRUSTEGIREN IZENDEGI BERRIA

Maiatzaren 14ean, Bilbon, Bibliotheka munizipalean, ikurrina lehengo kulunkatu zen kalean, Jose Mari Satrustegi euskaltzainak bere euskal izendegiaren bigarren edizioa publikoki agertu zuen. Euskaltzaindiaren babespeko argitaratze hau, aurrekoaren antzera, Banco de Vasconiak finantziatua izan da eta lehengo izenez gainera dokumentu zaharretan aurkituriko beste ugari askoz aberastua da. Arana-Elizalderen behialako egutegiko zenbait ere ba dakartza. Euskal izendegi osoago bateranzko bidean, pauso bikaina benetan Satrustegirena.

Euskaltzaindiaren eskuko presentazioan Villasantek sarrerako hitzak egin zituen, eta ondoren Satrustegik euskal izenek hauzitegietan oraintsu arte pairatu duten bereizkeria salhatu zuen, lege berriaren abantailak seinalatuz. Retanaren nomenclator euskéricoa, haren —eta gure— ustez, herriari mesede bat egiteko asmoz ez baina aprobetxategismo nabaraiz egina izan da, gure jendeen artean nahasbidea ez beste sortuz.

Edizio ofizial berri honetatik 60.000 ale atera izan dira, Euskaltzaindiaren eta Banco de Vasconiaren bulego guztietan dohainik jaso daitezkeenak. Zorionak Satrustegiri, Euskaltzaindiari eta banku horretakoei.



EUSKAL LIBURU KANTUEN ARGITALDARIA

EDITIONS DE LIVRES ET DISQUES BASQUES

52, RUE PANNECAU

64100 BAYONNE

TEL. (59) 25 43 90

10 DISKO, 45 ITZULIKOAK

(Pagola, Ospital-Carrere, Maite Idirin, Duhalde eta abar)

33 ITZULIKO DISKO ETA KAXETEA

- Ospital-Carrere (doblea) 2 k7
- Ortziken (doblea) 2 k7
- Errobi (bat) k7
- Maite Idirin (bat) k7
- Kantariak korala (bat) k7
- Xalbador k7 I-II-III
- Etxeberri anaiak (bat) k7
- Louis Beheretxe (bat) k7
(Euskal herri dantzak)

IRATI SAILEAN ARGITARATU LIBURUAK

- Hil ala bizi (Larraun)
- Marxisma eta nazional arazoa E.H.
(P. Iztueta eta J. Apalategi)
- Klase burruka eta aberri burruka
euskal mugimenduan (J. L. Davant)

OLDAR SAILEAN ARGITARATU LIBURUAK

- L'Oppression culturelle française au
Pays Basque (Manex Goyhenetxe)
- Histoire de la colonisation française
au Pays Basque (Manex Goyhenetxe)
- La Vasconie et L'Europe nouvelle
(Heiko Sagredo de Ihartza)
- La danza folklórica vasca (H. Lamarca)

ETA "KEMEN" ZERGATIK EZ?

Irakurri berria dut Sagi-ren artikulua, "Ur nahasietako arrantzariak" titulua duena, azkenengo Punto y Hora de Euskal Herria astekarian, 5-11 de Mayo de 1977, n. 34. Ez naiz sartzen ez alde eta ez kontra horko ur sakonetan. Uste dut ni baino epaikari hoberik eta ofizioa gogokoago duenik ba dela bazterretan. Nik ba ditut, ordea, neure eritziak euskaldunen pertsona izenez eta eritzi horien arauera mintzatzeko saiaturik naiz inor etsai ez banu bezala, edo eta oro adiskide banitu bezala. Bestek bereak azaldu nahi baldin balitu nik pozik entzungo dizkiot. Ondo estimatzen dut Satrustegi-k egin duen lan mandoa, eta baliotsua, baina horregatik ez dut absolutuki gutiesten besterik gabe Jose Maria Bereziartua-ren ahalegintxoak. Gehienez ere zentzurik hoberenean eta zorrotzenez kritika hotz baten beharrean dagoela esango nuke, besterik ez, eta biltzaileaz baino ez naiz ari, bera ezagutzen ez badut ere eta bere helburua jakinaren gainean saltsa zikinak sortzen den ala ez ez badakit ere, susmoa agerian ezarria dagoenez. Apeza ez naizen aldetik ez diot kontzientziako esamina egin dezan erregutuko gero ene bidez edo beste baten bidez bere bekatuak Jainkoari aitortu diezaizkion. Gainera ez genuke ezer aurreratuko sarturik gauden dinamikan sarturik gaudela. Lasai dagoke enegatik. Batez ere eskatuko nioke, ordea, berriz zerrendak agertuko balira informazio zehatzagoa emateko, bereziki hitz arruntetan oinharria duten izenen itzulpen kontuetan eta erdaldun edo erdi euskaldun zeharo euskaldundu nahiekoei begira. Egia esateko, euskaldunoi erdal itzulpenak ez digu batere kezkatu behar tradizioaren arauera kokatua ez dagoen izen berri bat ipini nahi baldin badiogu seme edo alaba bati, aukeratzea euskal hitza delako, eta ez bestegatik, egin behar baitugu formari dagokion aldetik eta oraingo legeak ere ez baitu besterik eskatzen. Esaterako Eztizen ene gusturako izen ondo polita da, erdaraz "dulce nombre" ez bada ere "nombre de miel" baino. Poeta batek aukeratzeko modukoa dela esango nuke, bere joko poetikoen bidez hedatua nahi duen mezuari ondo baletorkio. Hala ere ondo ulertzen dut eman dizkigun zerrenda horietan itzulpenak edo eta izen propioen euskal izena aukeratzeko bidea eman baitio Madrileko lege aldatu berriak. Baina diodan guzti honegatik ez nuke

etsaitzat hartuko. Zergatik hartu beharko nuke? Saio bat, hobe edo txarragoa, hutsak gehiago edo gutxiago dituen, egin duelako? Moldezko letretan bere eritziak, zuzena ala okerra, eman duelako? Ez naiz horretan eroriko. Ezta gutxiagorik ere.

Merkatuetan eskaintzen zaizkigun produktu ondo bukatu gabeak, ordea, ez dute azkenik eta butzu ondargabe batean sartuko ginatke baldin zorionerako edo zoritxarrerako murgildurik gauden presaz eta konpetentziaz beterikako kontsumu sozietate zoro, bildurgarri eta bortitz hau sakon arakatzen hasiko bagina. Eta argi ikus daitekeenez, Euskal Herria buru belarri sartzen ari zaigu geroago eta gehiago bide horretan zehar eta pertsonakumeok jasan behar dugun propagandaren bonbardeo eten gabea. Bide batetik edo bestetik gure gizarteak etorkizunean bere senera etortzeko modua aurkitu beharko duela iruditzen zait.

Pertsona izen kontuetan uste dut gurasoak direla azken finean seme alaba jaio berriei nola deitu erabaki behar duten nagusi bakarrak, Estatuaren beraren gaitetik, inori kalterik egiten ez dioten neurrian bederen. Eta hau lege positibo guztien gaitetik ezarri behar genukeen lege naturala dela uste dut eta gizonaren eskubideez horrenbeste mintzatzeko garen garaiean oraindik ez dirudi denentzat argi dagoenik.

Satrustegi-ri Bilbotik emakumezko batek deitu omen zion agiri bat eskatzen bere umetxoari Kemen izena ipini nahi ziolako. Eman nahi ez baldin bazion eskubide osoa zuen ez egiteko, Estatuaren leihatila baten atzean dagoen gizona ez baita. Baina zergatik saiatu behar du guraso horrek aukeratu duen izena hankaz gora publikoki botatzen berrondoko gisako bat ematen diola saltsa zikinaren kontua aipatuz? Zer erru du gurasoak? Zerbait izatekotan eskubidea besterik ez du, berak, eta bizi baldin badu bere senarrak ere bai, mantendu behar baitu haurra eta bestek, eta ez dut entzun maite ez duenik. Eta kemen euskal hitza ez al da? Jakina, ez naiz sartzen itzulpen gutxi gorabeherakoetan, zeren izena hartu behar zuena jaio berria zenez gero batere axolarik ez baitzuen kasu horretan nola zen erdarazko ordaina jakitea.

ALFONSO IRIGOYEN

arrazistak katxondeoan

ARRAZISTAK KATXONDEOAN

Lan hau idatzita nuen, ANAITASUNARA bidaltzeko gertu, baina gaur eguerdian Dean Johnson-ek bisitatu eta eskari bat egin dit: Deustuko Unibertsitatean berarekin euskara ikasten ari direnzentzat lan errazak idaztea.

Hori eta gehiago zor diot Dean Johnson ipar-amerikar andreari, hark nire "Metodo de Euskara" ingelesera maisuki itzuli duelako. Deanny-ri esker laster ikusiko ditugu ingelesak euskara ikasten "A new method for learning basque" liburuarekin. Beraz, originala apurtu eta berri errazago bat egin dut. Baina goazen harira.

Arrazistak. Hitler, Rhodesia eta Hego Afrika. Eta Euskal Herriko historian zehar. Eta hortik kanpora ere bai, noski.

Hemen, eta oso atzera begiratu gabe, Espainiako gudu zibilaren aurretik ezagunak dira jeltkide eta etorkinen arteko eztabaidak. Gero Gurutzada Saindua etorri zen eta nazismoaren bertsioa guregana ekarri zutenek Euskal Herriaren kontrako arrazismo amorratu bat sortu ziguten, euskara eta euskal kultura debekatuz, teknologia handi bat eskatzen zuten industriak hemen debekatuz euskaldun teknikariak Euskal Herritik irten erazteko, esku langile ugari behar zuten industriak hemen muntatuz Euskal Herria etorkinez betetzeko, etab.

Franco hil ondoren, hark Euskal Herrian zituen akolituak noraezan ari dira, eta zerbait hobegoren faltan, Blas Piñar aukeratu dute pontifikatzeko. Izpiritu ez oso saindu batez beterik, Bilbon oraintsu egon da eta haren jarraitzaile zintzoek ongi ikasi dute hain sutuki predikatu dien sermoi arrazista. Beraz, irten eta kolpeka hasi ziren Bilbo-ko kaleetatik zehar. Eta gure Gobernadore jauna enteratu gabe!. Tira, horrela dirudi, behintzat.

Baina arrazista antieuskaldun horik ez dira kolpe fisikoak ematera mugatu, eta "Honorato" izenarekin firmatzen duen tipo batek paper multikopiatu batzu zabaldu ditu, paleta eran idatzita, etorkinak euskaldunen kontra ezarri nahirik. "Desconfiad de los vascos... Uno que se apellide Rodriguez, aunque haya nacido en Begoña, nunca debe ser vasco", dio gure "Honorato" k.

Ba dirudi "Honorato" ren panfleto hau "Atxondo" jaunak irakurri duela, eta Begoñan jaio den Rodríguez bati euskaldun izatea debekatzen bazaio, berdin gerta daiteke Traukon bizi den Xabier Kintanarekin. Eta bi aldiz pentsatu gabe, jaun honek "Punto y Hora" aldizkarira lan bat bidali du

arrazismoa egiten. Atxondo jauna ez dio Kintanari "Hiztegi Modernoa" barkatzen eta, Don Kixotek haizerroten kontra bezala, ezpata hartu eta ez dio Hiztegiari horrialde bat osorik uzten. Eta hori gutxi delakoan, Kintanari "K" hizkia deituratik kendu (Quintana deitzen dio dozena bat aldiz) eta bere deitura propioaren aurrera eramaten du, zeren lan horrekin Atxondo jauna oso Katxondo geratu baitzaigu.

Eta orain serioski. Ez dugu onhartu behar inolako arrazismorik. Euskal Herria ez dugu ifernu bat bihurtu behar. Etorkinei eskua luzatu behar diegu euskaldun daitezen. Etorkin gehienak jende ona dira eta guk bezala nahi dute bakea eta anaitasuna. Hau zuek, deitura eta sorteri guztietako euskaldun berriok, ezin gobeago frogatzen diguzue.

Xabier Gereño

ANAITASUNAREN OHARRA

Zenbaki honekin ANAITASUNAREN propaganda politikoa azaltzen hasi da. Gure aldizkariak, bego hau argi, ez du osterantzeko publizitateaz gertatzen den bezalaxe— bere burua hor ager daitezkeen alderdi eta taldeekin nahiz eta nahi ez identifikatzen, berau esplizituki azaldu ezik. Oinharritz, gutienezko euskalduntasun eta demokrazia baten barruan, eta ekonomi arrazoiengatik, edozein alderdiaren propaganda onhartzen dugu, textuen euskara, Euskaltzaindiari eta gure irakurleei zor zaien errespituagatik, batua izanez gero.

Gure bidea zein den ba dakite irakurleek, eta editorialeetan garbi azaltzen ahalegindu izan gara beti. Une honetan beltza dakusagu, eta holaxe agertu dugu.

parabolak



GAZTE ABERATSAREN PARABOLA

(Irakur Lk. 18: 18-25)

Behin batez, gizon garrantzitsu edo euskal Onassis batek galdegin zion Jesusi:

— “Ah, Lider ona! Zer egin behar dut biharko Euskal Estatu Sozialistan sartu eta Betiko Bizitza lortzeko (gutxienez, lorturik dudanari iraunerazteko)?”

Jesusek orduan:

— “Zergatik deitzen nauzu ‘Lider ona’? Oportunismoz ala enbustieriaz?”

Ezagutzen dituzu Mandamenduak:

— Ez ipin adarrik emazteari; ezta ardo, esne Solares eta hainbat gauzarik ere.

— Ez duzu inor hilko legepean eta Ordena Publikoaren atxakiaz.

— Ez lapur, batez ere eskuzuriz.

— Correo-n, Gaceta-n eta RTVE-n inoren aurka kanpaina faltsurik egiteari utz.

— Ez dituzu zeure gurasoak salduko (eta beste-renak gutxiago).”

Orduan, Olarr... ez! Onassis-ek:

— “Ni beti demokrata! Gutxi gorabehera, hori denori, gazte-gaztetatik bete dut”.

Hori entzutean, Jesusek esan zion:

— “Hori, zeure amari sartuko diozu. Dena dela, zertxobait falta zaizu: bana ezazu duzun guztia — zurea ez baita— eta emaeizu behartsuei: lantegiak langileei, lurraldeak baserritarrei, itsasuntziak arrantzaleei, ikastetxeak ikasleei, eta horrelaxe izanen duzu biharko Euskal Herrian bizitzeko eskubidea”.

Baina hau entzutean, oso tristatu zen eta praktan kaka egin zuen, oso aberatsa baitzen.

Jesusek koadro hau ikustean:

— “Zein zaila izanen den kapitalista hauk Jainkoaren Erresuman edo Euskal Errepublikan sartzea! Zeren askoz errazagoa baita trailer handi-handi bat (Euskal Herriaren gamelurik ez baitago) orratzaren zulutik pasatzea, kapitalista bat sozialista bihurtzea baino!!!.”

Amen.

BI OINHARRIAK

(Irakur Lk. 3:8; 6: 46-49)

Ez pentsa gero, “Gora Euzkadi”, “Gora Euzkadi” esaten duen guztia, Euskal Erresuman sartuko denik.

Eman, bada, zeuen euskalduntasunaren benetako fruituak, eta ez ibil hortik zehar esanez:

“SABINO ABRAHAM DUGU AITATZAT”

zeren benetan esaten baitizuet, Jainkoak Andaluzia eta Extramadura-tik ere eman diezazkiokeela semeak Euskal Herriari.

Nik esanen dizuet noren antzekoa den, Herriaren hitzak entzun eta betetzen dituen:

“Bere abertzaletasuna oinharri sendo eta euskalduntasun jator baten gainean eraiki zuen gizonaren antzekoa da; eta Diktadura bat heldu zenean, exilio, gartzela eta torturen uholdeak etxe haren aurka gogorki eraso arren, zirkirik ere ez zuen egin, bere ideologia ondo sustraituta baitzegoen”.

Baina “gora eta gora” ari, eta Euskal Herriaren nahia egiten ez duena,

“abertzaletasuna,

bere euzkel jatorrian,

bere lau euzkotar abizenetan,

ikurrinaren margo ditziratzuetan,

eta -tutik jakin ez arren- bere euzkera garbi garbijan,

oinharritu zuen gizonaren antzekoa da

Eta Ceutan zaunkotsak entzuten hasi zirenean, bere abertzaletasun beroaren beroaz, urtu eta lurrindu egin zitzaion etxea”.

Gure prentsa behar dugulako



Geurea:
Bertako arazoak,
bertako ikuspegiz aztertuz



Askea:
Erriak bakarrik ertsatuko duena



Egibera:
Dana dan bezela zeatz esanaz



Gaurkoa:
Igaroa, oraina ta geroa
gaur-neurrietan erabiliaz

DEIA

Gure lurraren

Gure lurraren deia

LAUAXETAREN AZKEN ESKRIBUAK

lauaxeta gogoan, eta begien omenez
bi haur hil-dugu-gaur, hil hil
hurra!

eta erleak eta panterak persekutatzen
bete ditugu geure azken mendeak
urte oro, zenbait arrats

lauaxeta gogoan, eta begien omenez
phortunaren karroza beltza
erre dugu

Urtsuara abiatu aurretik...

Urtsuan,

titiak ebaki dizkiogu

Lantainako alabari

heriotz fruitu bailiren

eta lauaxeta gogoan, bi zuhaitz gazte

landatu dugu haren ninietan.

Julio Pagaldayk eraman omen zuen Gernikaraino, eta bertan esan omen zion adio, Lauaxetak "ez itxadon" esan ziolako; eta hurrengo egunean erori zen, kazetari frantses batzurekin batera, buruzurrez hornitutako banderak zeramazkiten soldatu etsaien hatzaparretan. Galduta zegoen "gizon baketsu, zuzen eta oso nazionalista" bezala gogoratu den poeta. Gasteizen fusilatu zuten Ekainaren 25ean, goizeko bost t'erdietan, udaren hastapenak markatu zuen bere amaiera.

Gaur argitara dakarten textua —bost karta, poema eta aitortza— oraindik argitaratzeko dagoela uste dut, borreroari zuzendutako poema hori behintzat ez du Onaindiak bere antologian sartzen, eta inor gutxi kezkatu da Lauaxetaz Larreakoa ezezik. Poemarekin batera aurkitu ditudanak ere ixilpean ez uztea erabaki dut, ez baita ene asmoa hain urruna ez den ideologia baten ispilu hori etxeko ganbaran gordetzea; etxeko ganbara, bestalde, aski beteta dago, eta euskaldunen lehena eta oraina ez dira makina batek nahi bezain desberdinak. Askok desio dugu eguneroko bizitzaren zilipurdikatzea, eta geure komunitatearen eraberritze osoa, baina gaur ere, Lauaxetaren kasuan —berrogei urtetako perspektiba dela medio— hain argi ikus litezkeen elementuak nabarmentzen zaizkigu; ideologiaren nagusitasuna, eta ortodoxiarena hain zuzen, esate batetarako, eta sakrifizioaren sublimaketa, "askatasuna bizitza baino gehiago" maitatze hori, bizitzaren kanpotik ezer bailitzen! Ez dira hauk paralelismo bakarrak izanen, seguru asko, zerrenda luzeagoa dateke.

Lauaxeta poetaren zortea, bestalde, nahiko paradoxadun gertatzen da, eta honetan ere ba du gaurkookin berdintasunik. Poemagintzaren lege na-

gusienetako bati jarraituz, garaiko ideologia bere poemetatik kitatzen jakin bazuen ere, ez zuen beste horrenbeste egiten jakin hizkuntzarekin, peto-peto konplitu zituen puristen nahiak, bere eta gure kaltetan. Kaltetan, zeren ulertezina bihurtu baita bere herrikide gehienentzat, ia denentzat. Literaturaz ematen diren hitzaldietan, Lauaxetaz ez da ezer esaten, edo "ezin dut poeta honi buruz ezer ere aipatu, ulertzen ez baitut" botatzen da. Ba dira bere poemak kantatu nahi dituzten abeslariak, Edu Iriondo eta Antxon Balberde esan didatenez, baina kasu bakanak dira, eta gainera zaila da nola konpontzen diren imajinatzea. Laukizen bertan ere, itzulpena behartuak aurkituko dira, pentsatzen dudanez.

Lauaxeta praktikan, poeta poloniarra da. Arrotza, ulertezina, hornidura huts bat. Eta hau penagarria da, irudi poetikoa eta neurria hain ondo erabiltzen zituen poeta baten kasuan. Eta poeta hori Gora Euskadi Askatuta esanez izan zela fusilatua gogoratzen badugu, patetikoa ere ba da. Ez dago proporziorik.

Beste puntu bat, oraindik. Linguistek berehala konprobatuko dutenez, azken textu hau gaztelaniaz idatzita dago, eta sintzeritatean sinesten dutenek diotena, hots, herioa dela bizitzaren epaile hoberena, egia bada, esanahidun handikoa da bere joera. Rikardo Arregik, euskaraz idaztea, aukera bat zela esaten omen zuen, hori bezain ximplea. Baina aspaldi honetan zerbait ikasi dugu, eta gaur ba dakigu aukera hori contranatura egiten dela asko eta askoren kasuan. Lauaxetarenean, hala dirudi.

Arestik ere askotan esan omen zuen "gaztelaniaz idatzi behar nuke", eta orain dela gutxi beste idazle batek" denok ixiltzen badugu ere, egia zera da, hobeki espresatzen garelaz gaztelaniaz, euskaraz baino"... eta ez dira kasu bakarrak izanen, noski.

Ba dirudi Euskal Herriak eskatzen duen zerga bizitza pertsonalaren zirrikituetaraino ere iristen dela, zeren hori egia bada, somatzen eta aipatzen ditudanak kexa arrazoizkoak badira, norberaren kaltez —espresatzeari eta komunikatzeari uko egitea kalte —den heinean— eta sakrifizioaren espiratan zehar ari garelaz "etxea jasotzen" esan baikenek.

Eta eztabaidatu, eta deuseztatu egin behar dira sakrifizioaren aldare guztiak, inoiz osasungarriak gertatu ez baitira.

Nik nahi baino ideia gehiago lardaskatu ditut gaur, ezer onerako. Baina ez nuen Lauaxetaren azken eskribuen aurkezpena egitea baizik. Hor daukazue.

bernardo atxaga

Oharra: ene esker ona Julio Pagaldayren alabari, eta beronen senarrari, Lauaxetaren eskribuen aurkezpen hau egitea posible egin dutelako.

J.M.— J.T.

Yo llevo entre mi espíritu encendida
la hermosa luz del entusiasmo ardiente;
amo la libertad más que la vida
y no nací para doblar la frente.
Por eso estoy aquí de altivo y fuerte
tu fallo espero con serena calma,
porque si puedes secretar mi suerte,
nunca podrás envilecerme el alma.
Hiere, yo tengo en la prisión impía
la honradez de mi nombre por consuelo;
Que me importa no ver la luz del día
si tengo en mi conciencia la luz del Cielo?
Que importa que entre muros y cerrojos
la luz del sol, la libertad me veles,
si ven celeste claridad mis ojos?
Si hay algo en mí más fuerte que tu yugo
algo que sabe despreciar tus iras
y que no puede sujetar, verdugo
el terror que a los débiles inspiras?
Hiere. Bajo tu látigo implacable,
débil acaso ante el dolo impío,
podrá flaquear el cuerpo despreciable
pero jamás el pensamiento mío....
Más fuerte se alzaré, más arrogante
mostraré el golpe del dolor sus galas;
el pensamiento es águila triunfante
cuando sacude el huracán sus alas.
No me importa..... tu furia es impotente,
víctima del placer, sueño de un día.
si todos ante tí doblan la frente.
"YO SIENTO ORGULLO DE LEVANTAR
LA MIA".

.....
VIVA JESUS



Cartas escritas por ESTEBAN URKIAGA, pocas horas antes de morir en la prisión de Gasteiz el 25 de Junio de 1.937.

Celda 52

PARA CARLOS ZUBILLAGA.—

Mi querido amigo: Creo que me quedan pocas horas de vida, y no quiero dejar de agradecer todas las atenciones que ha tenido conmigo. Le doy las gracias de todo corazón y en pago de ello le dejo para Vd. al abogado Santamaria un lápiz de oro, lo único que me queda. Será una muestra de lo mucho que le aprecio. Cuando llegue a Bilbao abra-ce en mi nombre a Enrique y Evaristo. Diga a todos que fui NACIONALISTA hasta el fin, que supe morir.

42. hor.

En mis labios la palabra última será Jesús. Yo os espero en el Cielo. Vaya algún día a Munguia y bese a mis padres. Quiero también que Enrique vele y trate como a un hermano a Julio Pagalday. Que abrace a Iñaki Garamendi. No dejéis de ser cristianos vascos.

*Un abrazo muy fuerte a su hermano y Garbisu
Hasta la eternidad os saluda con sinceridad.*

ESTEBAN DE URKIAGA

JULIO DE PAGALDAY BARAINCUA.

Mi buen Julio: Muero por la Patria y perdono a mis enemigos. Cristo es bueno con su Esteban, pues le dió la gracia.

ANAITASUNA, 77-6-1

El último favor que te pido es que seas un buen cristiano. Tienes que casarte y ponerle mi nombre al primer hijo. En vida te quise con cariño porque fuiste fiel. Ahora te amo más. En el Cielo te espero y pediré mucho por tí. Visita a mi madre y bésala de mi parte.

Adios Julio, hasta la eternidad te abraza.

ESTEBAN

INAKI DE GARAMENDI INCHAURRANDIETA.

Mi querido Iñaki: Dentro de pocas horas seré fusilado. Muero contento, pues siento a Jesús junto a mi y amo como nunca a la UNICA PATRIA DE LOS VASCOS. Iñaki, a quien quise con ternura de padre porque eres bueno, al acordarte de Esteban, quiere mucho a Cristo. Sé casto y puro. Ama a Euskadi. Al morir te bendigo, lo mismo que a tus padres. Visita a mi pobre madre y le besas en la frente.

Adios hasta el Cielo, una y mil veces te bendigo.

ESTEBAN

A MIS PADRES Y HERMANOS.

Esteban vuestro hijo y hermano, antes de morir os bendijo y pidió a Dios que os consolara.

Muero muy contento con Cristo junto a mí. Voy al Cielo y allí os espero. Sed buenos cristianos, amad a Jesús, amaos los unos a los otros. Padre, sé el amparo de todos, madre, enseñales el camino del Cielo. Alejandra, Miguel, Felisa, Lucia y José Maria, sed buenos, rezad por mi, que nos reuniremos en el Cielo.

Nunca falte en vuestra casa la Cruz, la Virgen Maria y la bandera de Euskadi. Os beso con ternura y rezad por mi alma. Yo pediré mucho a Jesús por vuestra felicidad.

Adios a todos. Dios os guarde;

GORA EUSKADI ASKATUTA

VUESTRO ESTEBAN

SR. PRESIDENTE DEL BISKAI-BURU-BATZAR.

Mi querido amigo: Pocas horas me quedan de vida y ante Cristo mi esperanza, quiero juraros obediencia y proclamar mi fé en EUSKADI. No temais a los que puedan matar el cuerpo, sino al alma. Que mi pueblo vasco sea creyente, siga el camino del Evangelio. Soy feliz porque muero creyendo en Jesús y en Euskadi.

Nuestro pueblo es amado de Dios y por eso sufre tantos males. El premio será muy grande. Esperad todos en Dios y confiad en EL. Un abrazo para todos, emakumes y patriotas.

Os espero en Dios.

Mi testamento

En el nombre de Dios Padre y de Dios Hijo y de Dios Espíritu Santo, entrego mi alma a su Creador, en quien espero por los méritos de la Pasión y muerte de Cristo. Doy mi cuerpo a la tierra, pues de ella fui formado, pero creo que resucitaré el último día. Yo Soy la Vida nos dijo Jesucristo; quien cree en mí vivirá eternamente.

No me avergüenzo de Cristo y espero que El tampoco se avergonzará de mi en la gloria de Su Padre. Los últimos días fueron amargos, pero los ofrecí a Jesús para que perdone mis infinitos pecados. Pedí luz a mi Santa Madre la Virgen Maria para que me iluminara y me mostrase a Cristo. Ella me consoló con su gracia. Su Santo Rosario me dejó el alma tranquila.

Hijo sumiso de la Iglesia Católica Apóstolica Romana, creo cuanto Ella me enseña y me sujeto a todos sus Mandamientos. El orgullo mayor es morir en Sus brazos. Reniego de Satanás y de cuanto es pecado porque todo es muerte. Me confieso de todos los pecados de toda mi vida con sincero arrepentimiento; firme mi propósito y deseo de cumplir. Es mi deseo antes de morir, pedir perdón a mi Angel de la Guarda, a San Esteban protomártir. A san Pedro y San Pablo, porque no les guardé la devoción debida.

Anhelo para todos mis compatriotas la luz de Dios, que sean fieles a Jesús, que sigan sus doctrinas. Los pueblos no pueden salvarse fuera del Evangelio. Muero por Nacionalista Vasco, porque amo con pasión este desgraciado Pueblo. Espero en la bondad de Dios que algún día logrará lo que este su pobre hijo ansió ver en sus días. A mis amigos les pido una oración por mi alma. Si en algo les escandalicé que me perdonen y sepan que detesto todo pecado. Amigos míos, os quise en vida, pero os amaré más desde el Cielo. Allí os espero en el seno de Dios donde no hay tristeza ni malos días, sino perpetua luz de claridades y bienes. Si en mis libros hay algo que pueda servir de pecado, ruego a todos que sepan lo hice por ignorancia. Renuncio a ello.

Próximo está mi fin, por lo tanto hablo en verdad; creed en Cristo, esperad en Cristo, amad a Cristo.

VASCOS, carne de mi carne, sangre de mi sangre, EUSKADI TIENE QUE SER ETERNA; pero nosotros para ella y la Patria para Dios. Seguid al Maestro.

Dios sé misericordioso con este pecador y acepte sus sacrificios. Jesús ayer, hoy y mañana en quien y por quien somos recibidos.

Gloria a la Santísima Trinidad y Maria mediadora de todas las gracias.

ESTEBAN DE URKIAGA Y BASARAZ

Prisión de Gasteiz en la noche de su fusilamiento.—

CRISTO, TENED PIEDAD DE MI



musika

elkar

EUSKAL LIBURU KANTUEN ARGITALDARIA

éditions de livres et disques basques

Baionan, disko, kaxete eta liburu argitaratzailer den ELKAR etxeak, eta batez ere elkarkide diren kantari hauek: Manex Pagola, Peio Ospital, Pantxo Carrère, Maite Idirin eta Errobi bikoteak, goraki salatzen dute Hego Euskal Herrian gertatzen ari den lapurketa.

Duela zenbait egun konturatu gara Bilboko Padisanch etxea ari zela Peio eta Pantxoaren kaxetea banatzen. Kaxete hauk Elkar-ek Baionan argitaratutako itxura berekoak ziren, nahiz ederki ageri zen, bai kaxete azala eta bai zinta bera kopia hutsak zirela.

Kaxete faltsifikatu horietarik bana eskutan joan gara Padisanch etxearen buruzagi den Daniel Sanchez Ramos-ekin mintzatuz, berari gogorki eskatuz bere onetan utz zezan kinki-lan hori.

Baina, berehala berriz konturatu gara beste hiru kaxete banatzen hasi dela Bilboko etxe hau bera, kaxeteen egilea Barcelonako Satosa etxea delarik. Oraingoan ordea, azala ikurrin batez jauntzirik eta Peio eta Pantxoak abesten dituzten

kantuak beste batzuekin nahasturik agertzen direlarik.

Hegoaldeko kantari, kantarizale eta herri osoaren aurrean salatu nahi izan dugu ELKAR-eko kantarien interesen aurka doan azpilan hori, pentsatuz disko dendekek ere ez dutela gehiago horrelako kaxete motarik hartu nahiko. Zeren ezin onartua baita, Elkar-eko hala nola Euskal Herriko edozein kantarik, bere gustuz eta arriskuz emeki emeki egin duen lanaren fruituaz, orain beste etxe batzuek, egileei deus baimenik eskatu gabe, isilka baliatzen.

Bestalde, kasu honetaz baliatuz, nahi genuke herriari jakin erazi lan berdinen egiteko asmotan dabilzala liburu argitaldaria zenbait, orain arte ahal bezala eta isilka zabaldu diren liburuak, liburu horien egile eta argitaratzaileei deus baimenik galdatu gabe, beren kontura argitaratzeko eta banatzeko.

Elkar-en eta Elkarkideen iduriko, gure herriko kultura berritzen ari duten kantari eta idazleen lanek ez lukete inolaz ere, kulturen horretatik aparte eta bereziki kultura horren kontra ibili diren etxe batzuen eskuetara erori behar.

JAIALDIAK

EKAINAK 1etik 15era

3 MUSKIZ, Pilotalekuan 10,30etan

GORKA KNÖRR
JON BERGARETXE

3 BARAKALDO, San Vicente zineman 8etan

IBAI REKONDO
PANTXOA TA PEIO
OSOA

3 BILBO Matilde Orbegozo Eskolan Larraskitu 8'30etan

JOSEBA ETXEBARRIA
LUPE

4 TÓLOSA Txarama auzoan 10etan

MIREN ARANBURU
JOSEBA ETXEBARRIA

4 MUXIKA Ugarte auzoan 7etan

JOSEBA ETXEBARRIA
LUPE
IBAI REKONDO

4 ERRENTERIA Zelaian 9etan

MAITE IDIRIN
JON BERGARETXE
IZUKAITZ

5 IRURTZUN Pilotalekuan 8'30etan

GONTZAL MENDIBIL
JOSU GOIA
PATXI BILLAMOR

5 VILLABONA Pilotalekuan 6etan

JOSEBA ETXEBARRIA
JON BERGARETXE
MAITE IDIRIN

8 BARRIKA Zelaian 8'30etan

GORKA KNÖRR
NEREA GAZTELURRUTIA
JOSEBA ETXEBARRIA

8 DONOSTIA Anoetan 9etan

LUPE
PATXI BILLAMOR

8 BILBO Urkijo pilotalekuan Rekalde hauzoan 8'30etan

MAITE IDIRIN
XIKER

GURE BIDEA

JOSEBA ETXEBARRIA

8 HOSPITALET DEL LLOBREGAT (Catalunya)

Nazional gutiengoan jaialdia

BATISTA (Galizia)
RAMON MUNTANER (Catalunya)

LA BULLONERA
LUIS PASTOR

XEBERRI, ASIER ETA AITOR (Euskadi)

9 MEÑAKABARRENA 7'30etan

JOSEBA ETXEBARRIA
JON BERGARETXE

9 OIARTZUN Mamut aparkategian 8etan

ERROBI
MAITE IDIRIN
PATXI BILLAMOR

10 ELGOIBAR Capitol zineman 10etan

URKO

11 IBARRANGELUA (pilotalekuan) 8'30etan

KOXKA
JEIKI
MAITE IDIRIN

11 ILARDUIA -Araba- 10etan

PANTXO TA PEIO
PATXI BILLAMOR
LUPE
IZUKAITZ

12 SAN PEDRO OYA enparantzan 6etan

IBAI REKONDO
JOSEBA ETXEBARRIA

12 VILLAFRANCA DE ORDIZIA Altamira futboldegian
7'30etan

KOXKA
GORKA KNÖRR
JOSEBA BERGARETXE

Egun honetan Kardantxak egindako azken hiru diskak saltzen jarri dira. Hirurak euskal musika tradizionalaz beteak.

HERRIKO MUSIKA deritzonak, abesbatzak, betiko koral musika giroan jarraituz, ZAZPIAK BAT deritzon diskan agertzen da. ERESERKIA, orain arte debekatua izana, hemen agertzen da lehengoz.

Eta azkenez BONIK eta BILBO-KO UDALETXEAREN TXISTU-LARIEK egindako beste diska handi bat, herriko bereiztasunari jarraituz. Txistuak hots gogorra eta zaila dadukan legez, diska honen grabaketa oso ona iruditzen zaigu.

Hemendik denbora guttirako, diska-etxe berri honek, berri batzu eman dizkigu. Beraz Inaki Eizmendiren lehen diska "Gureak ez diren ixilen bi milagarren samina" bai eta Miren Aranburu, Joseba Etxebarria eta Zorion Egileoren diska berriak ere.

ENRIKE ZELAIK, beste diska handi bat atera du NAFARRO-A-ko doinuaz betea. Serioztasun handia eta lan txalogarria Enrikek egiten duena bere indarra eta jatortasuna akordeioa jotzerakoan.

Diskan datozen doinu askotatik VIVA NAVARRA, ERKUDENGO AMA BIRJINA, eta AXURI BELTZA aipa genitzake azken hau, txalaparta, pandero eta arranekin lagundua.

Beste alde batetik euskal diska-etxe batera etortzea pauso on bat dela iruditzen zaigu, euskal produkzio oso batera joan behar bada. Hola ba, Enrike Zelaia orain arte Belter etxearekin lan egin arren, diska hau INAKI BEOBIDERen ardurapean egin da. Zorionak, Enrike!.

Arletxe

OLDARRA

Bigarren disko luzea "Columbia" disketxeak "Oldarra" ballet taldeari egina, kanta hauekin:

"A" aldean: FANDANGO, AMA BEGIRA ZAZU, AGUR JAUNAK, MENDIAN ZOINEN EDER, AITONAREN ESANA, ESKU DANTZA, DEUN AGATE, ATXIA MOTXIA eta BURUZAPI GORRIDUNA.

"B" aldean: NAPAR ERESIAK, ALDAPEKO, AITAK ETA AMAK, DONOSTIA, ATZO TTUN TTUN, NORK ORAIN eta LOA LOA.

JOSU LOROÑO

Josu Loroñori "Columbia" k egin berri dion disko luzean doinu hauk aurki ditzakegu:

"A" aldean: ERROMERIAN, MENDI MENDIAN eta EUSKO ERAI.

"B" aldean: ASKE DANTZA, ANTGINAKO, GABIKA, MARITXU, AI HORI BEGI, TXAKOLIN, BASERRIKO KANPAIAK, MIRENTXU eta TXANTON PIPERRI.

OSKORRI

"C.B.S." disketxeak argitara eman du "Oskorri" taldeari eginko disko luze bat, Gabriel Arestiren oroimenez. Dituen kantak hauk dira:

BA DAKIZU NON NAGUAN, ASTOARENA, EMAZURTZ, MAITE DUGU MUNDUA, GURE AMA ITSASOA, GURETZAT, OINAZ ETA GANBOA, GORA TA GORA BETI, LAUGARRENEZ NEREA, ETORKIZUNAREN AURREAN

eta MALDIZIO BETIKOA.

Entzuleak hobe uler dezan, kanta guztien hitzak datoz euskaraz, espainolez eta frantsesez idatzia.

Dendariek esan digutenez, disko honek harrera handia lortu du jendearen artean, asko saltzen baita. "Oskorri" k dituen jarraitzaile ugariak ba dute disko honetan atsegin iturri bat.

DISKO BERRIAK

ESTITXU

"Columbia" etxeak Estitxuri grabaturiko disko luze bat argitaratu berri du, kanta hauekin:

"A" aldean: MENDIAN, NERE ALDETIK JOAN ZINAN, ZUTAN DUT PENTSATZEN, XORIETAN BURUZAGI eta NERE ETXOLA.

"B" aldean: ADIOS ENE MAITEA, ENIZ JINEN, LIBRO ZARE, NARTITZEN NIZ eta URTXO XURIA ERRAZU.

OLDARRA

"Columbia" etxearena hau ere, Miarritzeko "Oldarra" ballet famatuari eginko disko luzea. Disko honetan Kantak daude eta euskal instrumentuei grabaturiko doinuak: dulzaina, txistu, trikitrixa, etab. Kantak:

"A" aldean: POT-POURRI NAVARRO, MAITASUN ATSEKABEA, ARINETAN, HARA NUN DIRAN, MARITXU, JEIKI JEIKI, XORI ERRESINULA eta ERROTA SOINUA.

"B" aldean: FANDANGO, AGUR MARIA, CONTRAPAS INTXAUSTI, ITSASOAN, MARITXU eta HAURTXOA SEHASKAN.

X. Gereño

AMNISTIA
DENONTZAT!
ETA BAI
EMAKUMEENTZAT
ERE!!!

Amnistia eskatzen dugunean, lege errepresiboen deuseztatzea exigitzen dugu; ez baita aski presoak kalera irtetea eta herbesteratuak etxeratztea. Lege errepresibo hauk, politika aldetik aztertzen ditugu, hots, alderdi politikoen askatasuna, adierazpen askatasuna, nazional eskubideak lortzea, etab.

Beste aldetik, garbi ikusten dugu, emakumea beziki zanpatzen duten lege batzu ba direla, espainiar estatuaren mailan. Hala eta guztiz ere, amnistiaren alde burrukatzen duten erakundeek, orain arte, ez dute helburu bezala "emakumeentzat amnistia" hartu. Hategia, emakume arazoa, ez dute, ez alderdi politikoen, ez beste moztako erakundeek, jaso. Eta ez bakarrik emakumeen "deliktuei" dagokienean, baizik eta beren politik ekintzen ondorio bezala preso dauden emakumeekin solidaritateari dagokienean ere.

Alderdi eta erakunde politikoen, amnistiaren alde, gartzeletan kontzentrazioak eratzen dituztenean, gizonen presoak dauden gartzeletara egiten dute dei beti (adibidez: "Modelo" Bartzelonan, "Carabanchel" Madrilan, etab.) "Trinidad" era eta "Yeserías" era herria manifestaldiak egitera joan denean, feminista taldeek dei egin dutelako izan da.

Eta hori zergatik? Nola ahanzten dituzte alderdi eta erakunde politikoen, askatasuna lortzeko burrukatzeagatik preso dauden emakume hauen egoera? Egoera latza gainera, gizonen baino gogorragoa hain zuzen, ikusiko dugun bezala.

Bi presondegi moeta dira estatu mailan: epaiaurrezkoak (prebentiboak) eta penalak.

Epaiaurrezkoak, probintzia hiriburu guztietan dira, normalki gizonen presondegiko pabilio baten gisakoan. Bartzelonan eta Madrilan, emakumeentzat presondegi bereziak daude (Trinidad eta Yeserías). Penalak, estatu mailan, bi dira: Alcalá de Henares (komun eta politikoen) eta Alcazar de San Juan ("peligrosidad social" ekoentzat). Kondena motxak direnean, probintziar gartzeletan bete daitezke.

Presondegi batzutatik bestetara, asko aldatzen da bizimodua, hau parte onean, zuzendariaren eta gartzelako pertsonalaren irakera desberdinen ondorioa delarik. Hala eta guztiz ere, emakume presondegi guztien berezitasun jeneral batzu azter ditza-kegu.

—Material kondizio txarragoak.— Janaria oso txarra da eta gutiegia. Estudiatzeko toki egokirik ez dago. Osasunerako zerbitzuen aldetik, sendagile espezialistak behar direnean, ez dira azaltzen, eta azaltzen direnean, denbora luzea igaro ondoren.

—Errepresio handiagoa.— Zentsura, gizonen koentzatat baino gogorragoa da (janzkeran, liburuetan, aldizkarietan, etab.). Presoen artean harremanak moztu egiten dituzte, batez ere politiko eta komunaren artean, langile eta intelektualen artean, batzuei eta besteiei tratu desberdina emanez.

—3 urtetatik beherako umeak, presondegian egon daitezke beren amarekin, honek hala nahi baldin badu edo umea zaintzeko inor ez badu. Ume hauek ez dute jokatzeko tokirik, ez eta ere pertsonal espezializaturik (haurtzainak etab.) eta titiki-tandik bizitzen duten giro honen, bizi guztirako markatuta uzten ditu.

Puntu hauk, politika aldetik preso dauden emakumei dagokienean. Baina preso gehienak, emakume bereizten duten legeen aurka jokatu dutelako, espetxeratuta daude. Hots, adulterio, abortu, eta horrelako zenbait "deliktu" egin dutelako.

Azter ditzagun "deliktu" hauen sustriak: Moralki, burjeserik bi neurri erabiltzen ditu, bai legeetan bai eguneroko bizimoduan, bat gizonen koentzatat, beste bat emakumeentzat. Adibide bat: "Emakumeak hitzez tratu txarra ematen badio senarrari, zigorra jasotzen du" legesortak dioenez. Gizona berriz, "fisikoki bere emaztea jotzen ez duen bitartean, lasai egon daiteke".

Uste dugu ezen pertsona baten aurkako erasoa, nahiz hau emakumea edo gizona izan, berdin-berdin zigortu beharko litzatekeela.

Penal Legesortak dioenez, bere 499garren artikuluan, "adulterioak emakumeentzat, 6 urte arteko zigorra jaso dezake", "senarra bera baldin bada salhatzailea eta hopek nahi ez badu, emaztea ezingo da behin-behineko askatasunez irten".

Dakigun bezala, gizonen koentzatat normala ematen da, ezkontzatik at sexual harremanak izatea, ezkontzetan emaztea ez den emakume bat ez duen bitartean.

Injustizia garbi dago. Ez dugu eskatzen gizonak ere zigorra jasotzea bere sexual bizimoduagatik, baizik eta denontzat ahalgarri izatea sexual harreman libre batzu eramatea.

Emakumeok, gure gorputzaren jabe izan behar dugu, eta hori da gaur egun, ez legeek, ez alderdi politiko gehienek (nahiz eta ezkerrekoak izan) onhartzen ez dutena.



Eztabaida handia sortzen ari den gai bat, abortua da. Lehenengo esango dugu, antikontzeptiboak saltzea zigortuta ez balego, hauei buruzko medikuntz informazio sakon bat emakumeei emango balitzaie, ez litzatekeela beharrezkoa izango aborturik egitea.

Gaur egun hau eginkorra ez denez, nola azaltzen digu Penal Legesortak "deliktu" hau? 413garren artikulua dioenez, "Hilaurtzen duen emakumeak, 6 urte arteko zigorra jaso dezake". Baina, gure "Código" honek, bere 444garren artikuluan, gutigarri bat azaltzen digu, hau ohorea da, ez emakumearena, baizik eta senitartearen ohorea. Beraz, emakumearen bizitza salbatzea, ez litzateke arrazoi bat izango, emakumearen erabakia bere gorputzaren gain ere ez. Senitartearen ohorea da legeak aditzen duen arrazoi bakarra, kondena gutiagotzeko.

Hala eta guztiz ere, espainiar estatuan, urtero 350.000 hilaur egiten dira gutienez, ezlegalak direnez, oso kondizio txarretan gainera. Urtean emakume asko dira bere bizitza uzten dutenak eginkizun honetan; eta beti emakume langileek, zeren burjesek ba dute Londresera joateko dirua.

Hiltzen ez direnen artean, gehienak gaixo gelditzen dira eta gainera gartzelara sartzen dituzte. Honen aurrean begiak hixtea ez da posible. Zergatik hartzen du emakume batek hilaurtzeko erabakia, dakarzkien arrisku guztiekin? Arrazoiak asko dira. Ezkondu gabe dauden emakumeentzat ez da ahalgarri ume bat izatea; gizarteak ez du ume hau onhartzen, bestetik, dagoen langabeziarekin, nola hazi ume hori? Horrelako kasu askotan, emakumeak bere gorputza saldu beharrean ikusten dira, beste biderik ez dutelako. Ezkondata daudenen artean, gehienek aurretik ume asko dituztelako ematen dute urrats hau. Hainbeste aho betetzeko, ogirik ez. Amak lan egin beharra, eta umeak gordezko tokirik ez. Etab, etab, etab... Azkenik, sozial arazoa, kapitalismoa da egoera hau sortzen duena.

Antikontzeptiboak legalak izanen direnean ez da aborturik izango. Abortua legala izanen denean, kondizio honetan egingo da eta ez da emakume hilketarik izango. Eta garbi geldi dadila, azkeneko hitza emakumeak izan behar duela, bere pertsonari eta bere gorputzari dagokion edozein arazotan.

Prostituzioa da, gartzelara emakume asko eramaten duen beste problema bat. Honetaz guti hitz egiten da, nahiz eta gure gizarteko gauza lotsagarrienetako bat izan. Sexual harreman libreak posible ez direnez, gizonaren sexual instintuak zirika-

tuz, diru iturri ederra aurkitu dute kapitalistek. Diru iturri hau, emakume salerosketa da.

Alde batetik, emakumearen irudia saltzen dute nonnahi, publizitatean, aldizkarietan, telebistan, filmeetan, pornografian, etab.

Honela, gizonaren zentzuak kilikatzen dituzte eta hauei bere beharrak ezultzeko, bi bide dituzte: emakumea erasotzea eta emakumea erostea.

Emakumearen aurkako erasoketa gehiagotzen ari da pornografiaren igoerarekin. Emakumeontzat, gaur egun, arrisku serio bat da toki ilun batetatik zehar pasatzea. Bortxapenak ugaritzen ari dira eta normalki ez dira zigortuak izaten. Horrelako gauza bat salhatzen duenean emakume batek, poliziek barre egiten dute eta ez dute serio hartzeko. Epaia egiten bada, erasotzaileak zenbait lagun eramaten ditu neska horrekin egon direla esateko eta gauza honela bukatzen da gehienetan, neska salhatzaile ordez salhatuta gelditurik.

Baina beste bide bat ere ba dute gizonak ere beharrak lasaitzeko, salgai dauden emakumeen erosketa, hots, prostituzioa.

Gero, burjeseriak, bere "moral" itxuratia azalduz, "Ley de Peligrosidad Social" deritzona ezarri du. Berrero ere, emakumeak dira gehien galtzen dutenak, eta emakume behartsuenak noski.

Uste dugu ezen prostituzioarekin bukatzea, gizartea osoki aldatu gabe ez dela posible izanen, baina oraingoz exigitu behar duguna, lege hau desegitea da, zeren erantzunbeharra ez da prostitutena, hau merkantzia huts bat besterik ez direnez. Zigortu behar direnak, salerosketa honetatik dirua ateratzen dutenak dira. Beraz, legearen pisua horien aurka joan dadila.

Emakumea bereizten duten legeak asko dira. Orain gartzelara dauden gehienak, hemen ikusi ditugun legeen aurka joan direlako daude barruan. Beraz, orain, Amnistiaren aldeko burruka gogor hauetan, beharrezkoa da emakume hauentzat Amnistia eskatzea. Eta benetako Amnistia izan dadin, emakumea bereizten duten lege guztien deuseztatzea ere exigi dezagun.

Emakumeen askatasunaren aldeko burruka, luzea eta sakona izango da. Beharrezkoa da emakumeen erakunde autonomoak eratzea burruka hau zuzentzeko, baina uste dugu, iraultzaile izena daramagun guztion eginkizuna dela helburu honengatik burrukatzea.


ITZIAR URTASUN

EUSKADIKO EZKERRA

"EZKER BATU BATEN ALDE,
HERRI BATASUNAREN ALDE"

BERE ATZETIK EGINDAKO
PAKTO GABEKO HERRIAREN
PRESENTZIA ZUZENA,
DEMOKRAZIAREN GARANTIA DA

E. E. kandidatura herritarra denez gero, zuk eman diezakezun laguntza ekonomiko bakarra du. Zure aportazioa, C. A. V. ren 20.205/63-1 kontu korrentara zuzendu dezakezu.



EUSKADIKO EZKERRA
IZQUIERDA DE EUSKADI

Herriak eraman duen borroka-
rekin ados baldin ba zaude
ZURE BOTUA EMAIGUZU



Gutun honekin, zuen aldizkariaren 338.alean agertu zen Jon Akostarenari erantzun nahi diot.

Ba da akort gaudeneko gauza bat eta beronetatik hasiko naiz.

Batera seinalatzen duguzuen emakumearen problematikak ikusketa haundiagoa behar duela. Teoria oso bat egin beharra dago; historia oso bat, gurea, idatzi ez dena; doi-doi hasi den burruka oso bat eta zeinetaz ikasi behar baitugu...

Ikusgune honetatik Martxoaren 8. egunari buruzko artikulua, zeinetaz Jon mintzo baita, deus seriosik ez du sinifikatzen, ez deus garrantzizkorik, ez deus sakonik.

Hori ez dut egin nahi. Egun baten zergatia ezagutzera eman nahi dut, beren egoeraz kontzientziatu diren emakumeentzat burruka eguna dena; erakutsi nahi dut zer den Bizkaiko emakumeok egin duguna egun honetan. Hementxe hasten da gure deskordioa.

Lehenik, uste dut ezen Anaitasuna bezalako aldizkari batek, Euskal Herrian gertatzen denaz informatu behar duena, ezin dezake aldebat utz, oraindano egin duen bezala, Bizkaiko feminismoa bezalako fenomeno bat, jaioberria den arren bere garrantzi handia duena gure etorkizunari begira.

Bestalde, ba diozu, "Bizkaiko Emakumeen Asanblada"-ren horria mintzatzen deneko gauzak erakutsi behar direla.

Erakutsi egin behar al dizugu emakumeok, elkarte honetan egiten dugun lana, semealabak zaintzen eta etxea prestatzen, infribaloratuta dagoela?

Datu asko falta al dira, entrepresetan lanposturik txarrenak ematen zaizkigula edo, kondizio onetan etxetik kanpoan lan egin dezakeguntzat, haurtzaindegi, garbitegi... zerbitzurik aski ez dagoela ikusteko?

Ongi al deritzozu etor da-kizkigukeen semealabak geure gain hartu behar ditugulakoari? Onhartu egiten al dituzu, emakumeok, emakume izateagatik, legearen aurrean jasan behar ditugun bereizkeriak?

Hirugarrenik, egiten ari garena zarata dela kexu zara.

Ezaugarri ona, noski! ihardesten dizut. Lotan ez gaudela esan nahi du, geure zapalkuntzaz akort ez gaudela eta egoera hau aldatzearen burrukatuko dugula. Esan nahi du ezen, gaudeneraino ekarri gaituzten zergatikoetan sakontzeko indarrak dauzkagula eta geure askakuntzarantz bide egiten hasten garela. Eta bai huts egingen dugula eta geure hutsez ikasiko dugula ere esan nahi du. Azken batez, gauza askoren artean, eta zentzu honetaz, aski ez den arren, egiten dugun zarata ona dela sinifikatzen du.

Besterik gabe

Idoye

Getaria, 1.977-ngo Apirilak 21

Agur Zuzendari:

Eskertuko genuke aldizkarian honako berri hau iragarriko bazenute, ahal balitz behintzat.

GETARIA

Getariako Hiri Batzarrak adierazten dio herriari gerra garaiko Getariako Batzokiko ikurriña, eta baita ere Emakume Abertzale Batzarenak, Baionako Museotik erakarriak izan direla eta Udaletxean jasoak.

Herriganatze honetan Telesforo Monzon jaunak asko lagundu du, eta lerro hauen bidez azaldu nahi diogu geure eskerrik beroena.

Mila esker guztiagatik, eta agur.

Gudari ezizen adoretuaz bere burua ongi gordetzen dakien batek honez gero dozena bat inguru anonymo bidali dio ANAITASUNARA X. Kintanari. Gaur hola-ko bat agertzen dugu, azkena, zenbait euzko zintzoren giza portiera nolakoa den gure irakurleek juzka dezaten. Izan ere, eskuina eta faxismoa ez dira, soil-soilki, Madrilen bizi. Posta zigiluen markatik egilea Gipuzkoako Errenteriakoa dela atera daiteke. Tamala da, dena den, Errenterian bizi arren, non argi ez dioskulako, hari kortesiazko bisitarik ezin egitea. ANAITASUNAK

Havier Huintana

Nortzuk dira "basko" ak...?

...Ez noski zu eta zure jarraitzaileak ere.

Euskalerrria kakastu eta desegin nai dezuten kabroiak (oraitxe disimulo gabe zabilzatenak) itxuragabekeria izango litzake zuek "basko"tzat edukitzea, ori titulo aundigia da zuentzako.

Zu eta zure modukoak azpijankerietan zabilzatenak moskoutarrak zerate, ta ori ondo dakigu zuetako moskoutar guztiak ez zerate ez "basko"ak eta gutxiago euzkaldunak, euzkal usai guztiari gorrotoa diezute ta orre-ixeagatik prest zaute Mosku'k ordainduta azpijankeriakeriako lanarekin. Asko ta asko dago kon- turatuta zuen joko illun da ziki-ñarekin.



"Euskaranto" a maltzur iskillutzat artuta kalte ikaragarria Euskalerrriari egiteko asmotan zabilz zu.

"Lujo aundiegia da gaurko Euskalerrriarentzako" (Arestik esaten zuen bezela beste txorakerietan berak sortu eta naasi zitunean eta zienean).

Euskalerrria'k epaia aukeratu dauka, zuretzat.

Aurria artu eta nola ala ilzaitez, ori egiten badezu zuretzako eta beste danentzako mesede aundia egingo dezu.

Gudari



juventudes socialistas



TOMAS MEABE. Euskaldun eta sozialista, Eusko Gaztedi sozialista baten eratzaille azieratik. Begiz ones /kusi ebain euskotarren nortazuna Gizaldi honen azieran Meabek ez. "dako berba beadabe gaurrotazuna: "In bar guziz gaztedi socialista bat eratu, daigun iraultzan bideak gure mutillak jarrai dagiezan."



Irakurle batek bidalita, hemen azaltzen dugu PSOEko Juventudes Socialistas-ekoek atera duten paper hau. Arestik idatzi zuen Cierra los ojos muy suave, Meabe... hari, guk geuk, oraingoa ikusita, hauxe gehituko genioke, "horrela sozialista espainolek euskaraz, txineraz, idatzitako astakeriak ez ikusteko".

Eta salhatuiko kargu larri guztionatik, ohi-tura zatar horretatik zuzentzen ez diren artean, PSOEkoak urrezko astabelarriak publikoki erama-tera kondenatzen ditugu. Epai hau Bilbon emana da, 1977.eko Maiatzaren 11.ean.

Juje jauna
Horko Onponegi

LANKIDE AURREZKIAK honelaxeko **200 ERREGALI** zozkatuko ditu...

Lankide Aurrezkiak, apiril eta maiatzeko aurreztaileeri altzairu herdoigaitzezko mahaitresneria dotoreak eskaintzen dizkie.

200 familitan urteetan ere pozez erakutsi eta zorionez gozatuko diren erregali dotoreak, halafede!



CAJA LABORAL POPULAR
LANKIDE AURREZKIA



Gipuzkoan, nor gu baino gertuago?

91 etxe zuretzat hurbilago

Izan ere, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa etxe hau duzue Gipuzkoako Kutxetan lehengoa.

Horregatik, gipuzkoarren zerbitzurako beti gertu eta prest egotera behartuak gauzkazu. Hauxe da gure egitekorik nagusiena. Horretarako sortu zen, batik bat, Caja de Ahorros

Provincial de Guipúzcoa 1896. urtean. Gipuzkoarre kutxa duzue Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Ba duzu arrazoirik, beraz, gurekin elkarturik egon zaitezen.

Utz ezazu zeure uste osoa Gipuzkoako lehen Kutxan den etxe honetan.

**CAJA DE AHORROS PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA**

